

GUaiXE.eus



Amets taldea,
Andaluziatik **zaku**
bete domina



Kirolak >> 13

Irurtzunek, gaurtik igandera, eta
Bakaikuk eta Iturmendik,
igandean, Trinitateari eskainitako
ospakizunak hartuko dituzte



Sakanerria >> 9

Lakuntzan asteburu betea

Gaurtik igandera Cava festa ospatuko da. Igandean, gainera, bertako produktuen azoka hartuko du herriak

>>9

Plazaola bide berdeari
Europako
bultzada >>5



Telekomunika-
zioak
hobetzeko
bide bila

Irurtzungo industrial-
dera zuntz optikoa
iritsiko da

>>6



Izurdiagako
ur sarea
konpontzen
ari dira

Ur ihesi ugariak era-
gotzi nahi dira

>>9

Madrilgo
akordioarekin
Aldasoro aske

>>8

Altsasun
euskalkiari
bultzada
emateko prest

Zuazoren hitzaldia
28an izanen da

>>6

Txirrinka
martxa
Sakanan

AHTren eta bestelako
egitasmoen kontrako
eta beste eredu baten
alde egiteko

>>8/16



Abian da
Mariñelarenaren
lanen erakusketa
ibiltaria >>15



Lukas Larraza
omenduko du
Aizkotzar
krosak >>11



Los del Rayok
disko berria,
rock
gehiago >>15

Sakanaoptika
optimista oculometria contactologia

ENJUZMEN AZTERKETA DOAN

% 50
-eko
DESKONTUA

2. AUDIFONOAN
Eskaintza ekainaren 30a arte

ESKAINTZAK

EGUZKITAKOEN
SORTA BERRIA

BETAURREKO
GRADUATUETAN
2x1

948 563 124 • Intxostia zeharbidea 10 • Altsasu • www.optikasakana.com

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Aritz Carabias
ZORIONAK Aritz!!
Enara eta Nahia Bera-
sategi Lakuntzaren
partez.



Iraia Carabias
ZORIONAK Iraia!!
Enara eta Nahia Bera-
sategi Lakuntzaren
partez.



Joseba
ZORIONAK artista!! 11 urte
dagoeneko!! Oso egun poli-
ta pasa ezazu eta nahi ditu-
zun opari guztiak ea jasot-
zen dituzun (ps-vita). Mu-
xu asko, Ane eta gurasoak.



Lorea Lacalle
Etxarri
ZORIONAK bihurri!! Bat, bi,
hiru... eta 4!! Ongi pasa eta
muxu handi bat. Familiaren
partez.



Egoitz
ZORIONAK bihurri!!
Ongi pasa zure 3. urte-
betetzean!! Muxu poto-
lo bat, Oihan, ama eta
aita.



Egoitz
ZORIONAK potxolo!
Ongi pasa eguna!! Arbi-
zuko eta Aguraingo fa-
miliaren partetik. Muxu
handi bat.



Jurgi
Zuri Zorionak, zuri zorio-
nak... bihotzez!!! Oso ongi
pasa eguna txapeliduna!!!
Muxu asko Lixerrengoko
familia guztiaren partez!!



Ferran
ZORIONAK Ferran!
Oso ondo pasatu dugu
zure lehenengo urtebe-
tzean. Musu pila bat
zure familiaren partez.



Izadi Garcia
Gurutzarri
ZORIONAK Izadi!!!!
Ye bi urte!!
Muxu haundi bet fameli
guzian partes!

maiatzak

20-26

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Kabbalah. Maiatzaren 20an, ostiralean, 22:30etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

Mitosia, Lur-J eta DMDA. Maiatzaren 20an, ostiralean, 23:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

Entzun zak. Maiatzaren 20an, ostiralean, 23:00etan Lakuntzako frontoian.

Tokan 2 la polla. Maiatzaren 20an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Barandi tabernan.

Terry Oldfield eta Soraya Saraswati. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Arbizuko kanpineko Amari aretoan.

Larrazpitek. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 22:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

Sorkun. Maiatzaren 22an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Antzerkia

La casa de Bernarda Alba. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Caricaturas antzerki taldea.

Pailazoak

Amalur. Maiatzaren 25ean, asteazkenean, 17:00etan Altsasuko Burunda pilotalekuan. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots.

Dokumentalak

Sakana Maitia. Maiatzaren 20an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Bakaiku-Bakedano. Maiatzaren 22an, domekan, 7:00etan Altsasuko Mendigoizaleak klubaren egoitzatik.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Done Bikendi Harana-Altsasu. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 9:30etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. 96 km. Zikloturista taldea.

Legaire. Maiatzaren 22an, domekan, 8:30etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20an Bioitza kanpinean. 47 km. Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Ibilbideak

Toponimia ibilaldiak. Altzituerta.



Kabbalah, gaur Arkangoan.

Maiatzaren 22an, igandean, 9:00etan Etxarri Aranazko estalopetik.

Erakusketak

Guk ibilitakoak gureak dira. Maiatzaren 20an, ostiralean 19:00etatik 21:00etara eta maiatzaren 21ean eta 22an, larunbatean eta domekan, 13:00etatik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Pello Mariñelarenaren lanak.

Nire lorategiko arrosari. Maiatzaren 25era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Itziar Nazabal.

Nafarroa 360. Maiatzaren 26tik garagarriaren 14ra, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Javier San Felipe Larrea.

Hitzaldiak

Jubilatu eta pentsionisten arazo sozial eta eskubideak. Maiatzaren

25ean, asteazkenean, 11:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Hizlaria: Adolfo Araiz. Sasoia.

Gerra gauza alua dun. Maiatzaren 26an, ostegunean, 18:00etan Arbizuko udaletxeko batzar gelan. Hizlaria: Amagoia Gurrutxaga. **Arbizuko emakumeen taldea.**

Hizketaldiak

Paradisu fiskalak. Maiatzaren 23an, astelehenean, 19:30ean, Irañetako Txapel Azpi elkartearen. **Astelehen Zoriontsuak.**

Literatura

Vino. Maiatzaren 20an, ostiralean, 20:00etan Olatzagutiako liburutegian. **Luisa Etxenike idazlea.**

Pintura

Gazte txokoa margotzen. Maiatzaren 20an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

Tailerrak

Drogak, informazioa eta prebentzioa. Maiatzaren 20an, ostiralean, 17:30ean Uharteko Arakilgo Aralar Mendi elkartearen. **14 eta 18 urtekoendako.**

Yoga magikoa. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 10:00etatik 12:00etara Arbizuko kanpineko Amari aretoan. **Omkar.**

Esku pilotak. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

Yoga eta arreta osoa buruko mugak askatzeko. Maiatzaren 22an, igandean, 10:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 16:30era Arbizuko kanpineko Amari aretoan. **Soraya Saraswati eta Terry Oldfield.**

Bestelakoak

Cava festa. Maiatzaren 20tik 22ra Lakuntzan.

Haurren eguna. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranazkoan.

Kirola euskaraz. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara Irurtzungo plazan.

Txirrinka. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 14:57an Irurtzunen. Sakana Lizarrustitik utziko du.

Xake eta partxis txapelketak. Maiatzaren 21ean, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxotiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 20an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

AHT eta beste azpiegitura erraldoien kontra. Maiatzaren 20an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko udaletxe parean.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Zahar-etxe atseginak. Maiatzaren 23an, astelehenean, 11:00etan Etxarri Aranazko azokan. **Sasoia.**

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Cava festaz Aitor Gartziarekin
- Txirrinkaz Martin Zelaiarekin
- Altsun eskuaz taldearen asmoez

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE



AHALEGIN

unibertsitateen sareek eskaintzen dituzten ikastaroak kudeatzen ditu eta zerbitzua doakoa da. Udan, ikastaro trinkoak eskiniko ditu.

Altsasun 30 urteko esperientzia du akademia honek. Helduak zein haurrak aritzen dira frantsesa ikasten eta maila eta ordutegi ezberdinetan. Akademitan ere Hizkuntza Eskolako azterketen prestaketa lantzen da eta emaitzak ziurtatuta daude. Akademiatik kanpo Ahaleginek enpresetan lan egiten du, Sakanan izan den krisiaren ondoren berriro enpresetan frantsesa ikastearen beharra somatu da. Sakanako Enpresariaren Elkartearekin batera lan egiten du. Mintzapraktika egiteko Frantzia

<< FRANTSESA

Udako intentsiboak eta maila guztiak

Eulerako prestakuntza

AHALEGIN

672 162 036
aahalegin@yahoo.es



ALAIN SENAR AKADEMIA

Ingeniari Industriala

eskaintzen dira.

UDAKO ESKAINTZA

- Errekuperaketaren prestakuntza.
- Kurtso berriko irakas-

gaien prestakuntza.

- Udako etxeko lanak eta proiektuak.
- Kurtsoan zehar emandako materiaren errepassoa.

Urtean zehar irakasgai guztiak euskaraz eta gazteleraz eskaintzen ditu, Fisika eta Kimika, Mekanika, Elektroteknia, Gaztelania, Euskara eta beste hainbat. Eta mailei dagokionez Batxilergoa, Selektibitatea, Unibertsitatea eta LH I eta II. Prestakuntzaren alorrean, eta urtean zehar, maila ezberdineko azterketen prestakuntzarako klaseak

AS

Alain Senar
akademia • academia

Euskaraz eta gazteleraz
Irakasgai guztiak
Maila guztiak

INGENIARI INDUSTRIALA 606 053 076
Egubera, 14 | ALTSASU

abcdefghijklmnopqrstuvwxyz akademikak

LIDIA MARTINEZ AKADEMIA

Biologia zientzietan lizentziatuta, Nafarroako Unibertsitatean

Lidia Martinez akademia hezkuntzan beraz esperientzia 1997tik ari da lanean zabala. Altsasun, nahiz eta Sakana Maila guztietarako eskaintza osoko ikasleak hartzen dituen, dauka irakasgai ezberdinetan,



matematika, fisika, kimika, lengua... Norbanako zein talde txikietan antolatzen dira taldeak eta jarraipena neurriari egiten da, pertsonalizatua. Bestetik emaitzak egiaztatuta daude eta horrek konfidantza adierazten du.

UDAKO ESKAINTZA

- Gaingitu gabeko irakasgaien errekeraketak.
- Irakasgaiak errepassatzeko klaseak.
- Ikasturte berrirako irakasgai berrien prestakuntza.

LIDIA MARTÍNEZ AKADEMIA

LM

BAKEA, 1 ALTSASU
626 084 133

TICK ENGLISH ACADEMY

1999ko urrian ireki zituen atea akademikak eta ordutik Sakana osoko ikasleak baita kanpokoak ere gurean izan dira. Ingelesa irakasten beraz 25 urteko esperientzia daukagu. Gazteenen ibilbidea 5-6 urtekin hasten da eta institutua amaitzean bukatzen dute. Bestetik helduen klaseak maila guztietarako daude antolatuta, hastapenetik aurreratuenetara. Urte guztian zehar ikasleak Cambridge edota Hizkuntza Eskolako azterketetarako prestatzen dute bere burua, B1, B2, C1 eta aurten ere C2rako (Proficiency) ikasle bat izan dugu.

Udan, akademian ikastaro trinkoak antolatzen ditugu, batez ere B2 eta C1. Udarako, Ingalaterran (Exeter) egonaldiak prestatu ditugu. 3-4 aste-etako egonaldiak izaten dira, bertan klaseak jasotzen dira eta familia ezberdinetan egokitzen dira ikasleak. Guztia akademian kudeatzen dugu.



ENGLISH tick ACADEMY

948 468 943
Altsasu



Raf Atxuri

astekoa

Altsasun bekela

Mainamikirri: Badakizubei gauzat? Lengo laanbatian Iyortia aldian niilela jende samalda bat ikus ninan. Eskueaz ari zitunen danak eta iyork e errepatu be sala handi batin sartu nindunen.

Ageda: Eta zer jonen bertan?

Mainamikirri: Eskuera berri batez hizketa iten zinain, bea oso ongi entenditzen nuanen!

Ageda: Zer esaten zinain?

Mainamikirri: Altsasuko hizketa berriz ikasi eta ibili nahi zeila!

Ageda: Ez don bate lan makala!

Mainamikirri: Bajakin nau sorginok gauza batzuk oso zailak diala, bea ahalegina gogoz in ondoren lanik zailena re behar bekela despeitu leike eta etekina ata. (...)

Ahaztua eta iraganeko kontutzat

hartua geneukalarik gazte zenbaitek deialdia egin eta ehun eta hogeita pasa lagun elkartu ginen apirileko arratsalde batean Iortia areto nagusian Altsasuko hizkera berreskuratzea xede. Ni neroni hainbeste gazteren bertaratzeak txunditu ninduen baikortasunerako izpiak emaki. Egia esatera Altsasuko hizkera berres-

kuratzea haren osotasunean (deklinabidea, aditz taulak, bokalismo guztiak etab.) ezinezkoa iruditzen zait. Ez, ordea, puska polit bat gure aho-belarrietan berrizparatzea: hitz, soinu eta esamolde sorta eder bat gure artean ibiltzea. Baina lehen-lehenik dakitenekin euskara erabiltzen hasi beharko dugu serio, berau

dugu ezinbesteko lehen urratsa.

Gero betoz Burunda ondoko hitzak: domeka, ilarriguntzi, iyo, nesakiya, mutiki, jostai.

Betoz txirrika eta sutaila, jasaille eta maki, irei eta guaindo. Betoz eta landu dezagun etorkizun euskaldun bat Urbasapean. Denon artean yazain (piztu) dezagun.

hara zer dien

Bikoteen arteko kontratua

Harremani eta zehazki bikote harremani buruz irakurtzen diren ipuin gehienak eta telebistan ikusten diren pelikula asko, bikotea osatu eta elkarbizitzen hasten diren momentuan amaitzen dira.

Maiteminar buruz asko eta asko idatzi da, garrantzia eman ez edo kenduz, sorrarazten dizkigun sentsazioak erakutsiz, eta nola kudeatu dezakegun aholkuak eman. Egia da sentimendu honek bere garrantzia duela

gure bizitzan, eta interesgarria dela ondo ezagutzea eta bideratzea, baina bikote harremanetako bidai garrantzitsua bikote bezala elkarrekin bide bat jorratzea erabakitzen dugunean hasten da.

Nolako bikotea izan nahi dugu? Elkarrekin bizi nahi dugu? Zer nolako harremanak nahi ditugu bakoitzaren familiarekin? Gure arteko harremanetan zein arau edo limite ezarriko ditugu? Nola zainduko diogu elkarri? Bakoi-

tzaren beharrak, nahi dituen espazio propioak... Hau da, gure arteko kontratua nolako izango da.

“Kontratua” hitz nahita erabiltzera nihoa, zeren askotan ideologikoki oso hotza iruditzen zaigun hitza denez, askotan hasierako galdera horiei ez diegu erreparatzen. Bikote askok uste dute elkarrenganako duten maitasunarekin nahikoa dela eta horrekin jada dena eginga dagoela.

Nire lanean etengabe ikusten

ditut bikoteak eta guztietan argi adierazi ez diren arauak. Eguneroko bizitzarekin batera eraiki dira, eta argitasun ezak ondoren arazoak ekartzen ditu.

Bikote harremanetan bakoitza gure motxilarekin iristen gara. Gure motxilan, alde batetik, gure familian eta bizitzan jasotako baloreak, ideiak eta afektuak daude, eta, bestetik, gure proiektuak, desioak eta etorkizunari eskatzen dioguna ere. Horrela, adierazi edo ez, norberak bizitza eta harremanak ulertzeko modua du, eta harreman bakoitzean espero duguna, bestearengandik jasotzea nahi duguna ere. Garrantzitsua da honi guztiari erreparatzea, arreta jartzea.

Bikote harremanetako ibilbi-

dea elkarri ulertzeko, zaintzeko eta bestearen ahultasunak ezagutu, onartu eta gaintzen laguntzeko espazio bat izateko, ezinbestekoa da norberaren beharrei erreparatzea, norberaren emozioak eta zailtasunak kontutan hartzea. Eta hau guztia lortzeko ezinbestekoa iruditzen zait elkarrekin dugun kontratua, adostea, eta behar dugun heinean moldatzea, egokitzea...

Maitasunak, inertziaz, ezin du hau guztia eraiki. Maitasuna gure buruari begiratu, bestearekiko begiradara iritsi eta kontratuaz hitz egin eta adosteko lagundu diezaigukeen lagun on bat da.

Olatz Berastegi

objektibo tik



131 ikasle Sakanako Orientazio Proban: Altsasuko Institutuko 72 ikaslek, Andra Mari ikastolako 31k, Iñigo Aritza ikastolako 19k eta Aguraingo 40k, DBHko 4. mailakoak, hartu zuten parte asteazkenean Arbizuko Zubaat eta Sandindegi aldeko basoan antolatutako Sakanako Orientazio Proban. Mapak eta iparrorrazak erabiltza, talde gehienek proban proposatutako baliza guztiak aurkitu zituzten.



Ikastolakoak Bardeetan: Iñigo Aritza, Andra Mari, Assa, Paz de Ziganda, San Nicolas, Labiaga, Errobi eta Argia ikastolako DBHko 3. eta 4. mailako 350 ikaslek 12 Bardeetako Orientazio Martxan parte hartu zuten. 17 taldetan banatuta eta bizikleta hartuta, Carcastilloko Bardeetatik abiatu eta Castildetierra izan zuten helburu (20 km).

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutuniek EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus** edo **948 564 275** telefonoa.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso
ZUZENTZAILEA: Miren Alonso
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuzordeta



Gorka Ovejero

Gaur, 10:00etan, Guaixen **ON-LINE ELKARRIZKETA**
Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez.

sakanerria >>

SAKANA

Telekomunikazioak hobetzeko bide bila

Zuntz optikoa iritsi bitartean, kostako da, telekomunikazioen sare komunalaren bidez konponbideak ematea litzateke helburua

Sakana 2020 Plan Estrategikoan lehentasun gisa jaso dago industrialdeen eta, orokorrean, sakan-darren telekomunikazioen hobekuntza. Gauregungoegoera "nahiko tamalgarria" dela aitortu du Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Iker Manterolak. Egungo ereduak eskaintzen duena ikusita, telekomunikazio sare komunalaren sustapenean hobetzeko aukera ikusi da.

Ibarrean Guifi.net fundazioaren telekomunikazio ereduazabaltzeko dauden aukerak ikusteko lehen azterketa egingen da. Horren ondoren, pixkanaka ereduak Sakanan zabaltzeko asmoa legoke. Horretarako, kontuan hartuko litzukete sakandarren beharrak eta eredu bera garatzeko toki hobe-

renak hartuko lirateke. "Toki batzuetan egitasmo pilotuak jarriko lirateke. Horrela, ikasten eta zabaltzen joatea. Horrek eskatuko du instalatzaileek halako azpiegiturak martxan jartzeko trebakuntza jasotzea". Bertako ekonomia sustatzeko bide bat dela gaineratu du. Prozesu horretan Guifi.net fundazioaren eskutik joanen da SGA, duten eskarmentuagatik eta gaitasunagatik.

Bi saio

Fundazioko Roger Baigetek euren ereduaren berri eman zien enpresa ordezkariari eta sakandarrei asteartean. Telekomunikazio enpresa handiak iristen ez ziren herri batean azpiegitura sare komun baten alde egin zuten. Eredu eskualdean zabaltzeko sare libre, neutral eta zabala eratuz eta, ondorioz, gaur egun eskual-



Guifi.net fundazioko Roger Baigetek euren egitasmoaren berri eman zuten.

de hori da Internet eta banda zabal sarbiderik handiena duen Kataluniako eskualdea. Herritarrei eta enpresei zerbitzu duina eskaintzeaz aparte, azpiegitura horiek man-

tentzeagatik tokiko ekonomia sustatzea lortu dute. Sakandarrek gaur egun zerbitzu egokirik jasotzen ez dutela adierazi zuten, "ez kalitatean, ez abiaduran... zerbi-

tzu kaxkarra, oso garesti ordaintzen dena".

Zuntz optikoa Irurtzango industrialdera

Nafarroako Gobernua, bestalde, herrialderako telekomunikazioen plan estrategikoa prestatzen hasi da. Horren berri jaso zuten udal ordezkariak herenegun. Gobernuaren aurreikuspenen arabera zuntz optikoa Irurtzango industrialdera iritsiko da. Eskualdeen arabera eredu ezberdinak aurreikusitakoak. SGAK eta Guifi.net fundazioak azken horren ereduak plan estrategiko horretan tokia izan dezala eskatu dute. Manterolak argitu duenez, "iruditzen zaigu Nafarroaren parte handi baterako eredu interesgarria dela. Herri txiki edo telekomunikazio sare kaxkarra duten herrietara iristeko oso modu interesgarria da".

Plazaolari Europako bultzada

2020rako, Arakilen eta Irurtzunen barna, Endarlatsa eta Iruña bide berde bidez lotuta egonen dira

Espainia-Frantzia-Andorra POC-TEFA 2014-2020 lurralde-lankidetzarako programak zein proiektu diruz lagunduko dituen jakinarazi zen ostiralean. Nafarroari onartutako 58 proiektuen artean dago Ederbidea egitasmoa, Bidasoa eta Plazaolako bide berdeak osatzea eta elkar-tzea asmo duena. Arakilgo Udala kide den Plazaola turismo partzuegoak, Imozko Udalak, Baztango turismo elkarteak eta Cederna-Garalurrek sustatu dute egitasmoa. Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 1,7 milioi euro inguruko diru-laguntza jasoko du. Egitasmoak 2,4 milioi euroko aurrekontua du eta 3 urtetan egingen da.

Lanak Nafarroan egingen badira ere, Europa zeharkatuko duen



Europa zeharkatuko duen Eurobelo bizikletendako sarean txertatuko da egitasmoa.

Eurobelo bizikletendako sarean txertatuko da egitasmoa. Izan ere,

Ederbidea moduko egitasmoak bulkatuz bizikleta gaineko garraio

iraunkorra garatu nahi dute Gipuzkoak, Nafarroak eta Pirinio Atlantikoko osatutako mugaz gairako lurraldean.

Egoera

Patxi Saezek, Nafarroako Gobernuko Sakanarako turismo arduradunak, Bidasoa eta Plazaola bide berdeen egoeraren berri eman digu: "Bidasoakoa aurreratua dago, Endarlatsa eta Doneztebe artean eginda dago. Doneztebe eta Elizondo arteko zatia faltako litzateke. Plazaolari dagokionez, Andoain eta Irurtzun arteko zatia eginga dago. Irurtzun eta Latasa arteko lurren desjabetzeak egingen ari dira orain. Sarasa eta Berriosuso arteko lurren desjabetzeak egiteko daude". Biak Imotzen dauden bideak baliatuz lotuko dira: "han ez zegoen trenik. Dauden bideak baliatuz egingen dira. Bi ibilbide daude eta aukeratu beharko da".

Saezek hiru urterako prozedura azaldu digu ere: "Lehenik,

Endarlatsa eta Iruña lotuko duen bide berde guztia Udalez Gairako Plan Sektorial batean jasoko da. Proiektua emanen da. Desjabetzeak egin eta lanak hasi". 2020rako eginga beharko luke Aizkorbe eta Irurtzundik pasako den bizikletendako ibilbidea.

Bizikletendako bide sare

Turismo teknikariak azaldu digunez, "autoendako errepide sare dagoen moduan, Nafarroa guztian bizikletendako (oinezkoendako eta zaldizkoendako ere) bide sare bat sortzeko asmoa dugu. Hala dago jasoa gobernu akordioan". Egitasmo horri Europak bultzada eman dio. Ibarra zeharkatuko lukeen bide egitasmoa buruan izan du beti Sakanako Mankomunitateak. "Proiektu honetan ez da sartzen. Sakandarrek mugitu beharko duzue. Arabarekin lotzeko eta Plazaolarekin Europa, Iruña eta Donejakue bidearekin bat egiteko aukera ematen du".

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria.
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

NEW THINKING.
HYUNDAI NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU · 948 562 261 · IRURTZUN · 948 600 657 · www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km):
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

» Altsasu

“Bi belaunaldiz estalita egon ondoren, euskalkia ahora”

Altsun Eskuaz taldeak Altsasuko euskalkia berreskuratzeko prozesua hasi du

Erkuden Ruiz Barroso

“Haria orratzean hariztatzea bezain zaila izango da”. Altsun Eskuaz taldean argi dute bide luzea dutela aurretik. Baina lana egiteko prest daude. Duela hilabete bat inguru euskalgintza eta euskalkiari buruz interesa zuten herriko hainbat gazte bildu ziren eta euskalkia berreskuratzeko lehenengo urratsak eman zituzten. “Euskaldunon tokia” berreskuratzeko “ezinbestekoa” ikusten du taldeak, baita herri osoaren “elkarlana” ere. Koldo Zuazoren hitzaldia antolatu zuten, baina bertan behera gelditu zen. Hala ere, herrian sortu zuen “jakin minak” aurrera jarraitzeko “indarra” eman dio taldeari. Koldo Zuazoren hitzaldia prozesuan



Asteartean Koldo Zuazok hitzaldia emango duela azaldu zuen Altsun Eskuazek.

“ezinbestekoa” dela diote, hortaz, maiatzaren 27an izanen da Iortia Kultur Gunean.

Altsun Eskuaz taldearen xedea “herria euskalduntzea” da. Baina jakin badakite “lan luze eta neke-tsua” dela. Hortaz, epe laburreko hainbat helburu zehaztu dituzte.

Dagoeneko prozesuarekin hasi dira “dinamizatzaile” papera hartuz. Altsasuko euskalkiaren inguruko materiala bildu nahi dute; idatzia zein ahozkoa. “Esparru guztietan euskalkiaren ikuspen handitzea nahi dugu”. Euskalkiaren jakin-mina piztu nahi dute,

Hitzaldia

Koldo Zuazoren Iortia Kultur Gunean hitzaldia maiatzaren 27an, ostiralean, 19:00etan.

materiala emanez eta informazioa modu “ulergarri eta atsegina” batean emanez. Gainera, antzeko prozesuak izan dituzten Euskal Herriko beste tokiekin harremanetan jarri nahi dute sare bat osatzeko, baita “bizipenak eta estrategiak” elkarbanatzeko ere.

Azken hogeita hamar urteetan euskararen ezagutza Altsun “izugarri” hazi dela azaldu du Altsun Eskuaz taldeak. Baina garen hori ez da egunerokotasuneko erabileran ikusten: “nolabait esateko Altsasu oraindik herri erdalduna da”. Altsasuko euskalkia berreskuratzeko aparte, taldeak euskararen normalizaziorako lan egingo du beste hainbat eragilarekin batera. “Ekimen hau eraldaketa prozesu horretan txertatu nahi dugu”. Bide “luzea eta zaila” dela badakite, baina “ilusioa” dute.

» Burunda

Familia langileen lan poltsa sortzeko deialdia

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazi du familia langileen lan poltsa sortu nahi duela. Lehiaketa- oposizio bidez aldi baterako langilea kontratatuko da eta, aldi berean, 5 urteko indarraldia izanen duen familia langileen lan poltsa osatuko da. Honako ikasketak dituztenak aurkeztu daitezke: zaintzetako erizaintza laguntzaile teknikaria, dependentsia egoeran dauden pertsonen arretan teknikaria, arretasoziosanitarioan teknikaria, klinika laguntzaile teknikaria edo erizaintzako laguntzaile teknikaria. Eskabideak eta dagokion dokumentazioa mankomunitateak Altsasuko Labadero eraikinean duen egoitzan aurkeztu behar dira asteazkeneko 14:00ak arte.

» Etxarri Aranatz

Bake-epaile bila

Etxarri Aranazko Udalak bakeepaile titularraren eta ordezkoren kargu hutsak betetzeko deialdia egin du. Interesa dutenek eskabideak udal txetxeko bulegoan aurkeztu behar dituzte, gaurtik hasita 15 egun balioduneko epean.

» Uharteko Arakil

Gazteekin drogez

Gaur, 17:30ean, Uharteko Arakilgo Aralar Mendi elkarteak

Drogak, informazioa eta prebentzioa. Izenburu hori du gaurko Uharteko antolatutako tailerrak. 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Hegoak taldeko kideek bi orduko tailerra gidatuko dute eta hura despeditzean gazteek taloak merendatzeko aukera izanen dute. Gazte txokoak, Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Uharteko Arakilgo Udalak antolatutako tailerra.

» Etxarri Aranatz

Bihar haurrak nagusi

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatutako Euskal Asteari bihar ospatuko den Haurren Eguna emanen dio hasiera. 11:00etan, plazan, haurrendako jokoak izanen dira. 12:30ean Bordetxe abere zirkuekin gozatzeko aukera izanen dute. 14:00etan haurrendako bazkaria izanen da. Txartelak ikastetxeetan eta Leku Ona tabernan daude salgai. 16:30ean binakako lasterketa, Naparpellet saria, jokatuko da. Hura bukatuta, 18:15ean, Irrien Lagunak taldeak *Bikula*, *Makula* *Kriskitin* *Dzart* ikuskizuna eskainiko du. Eguna txikiendako propio prestatutako auzatearekin despedituko da.

»

Udalaren udarako jardueratan eta kirol eskoletan izena emateko epea zabalik

Udako jardueretarako izen ematea gaur zabaldu eta asteazkenean itxiko da. Doako 012 telefonora hots egin behar da

Altsasuko Udaleko Kirol, Gazteria eta Ludotekaz zerbitzuek euren udarako eskaintza zehaztu dute, egunotan esku-orri moduan herriko etxeetara banatzen ari dena. Gazteria Zerbitzuak bi berritasun ditu aurtengo udarako. Batetik, beira edukiontzien gainean egiten den grafiti ikastaroa, garilaren 4tik 8ra izanen dena eta 15 euroko matrikula izanen duena. Bestetik, Donostiako hondartzara antolatutako irteera (3 euro).

Klaseak bukatu ondoren, familia bizia eta lana kontziliatu ahal izateko Aisiaz blai programa eskainiko du ludotekak. Garagarrilaren 22an, 23an, 24an, 27an, 28an, 29an, eta garilaren lehen 3 eta 12 urte bitarteko haurrek ludotekan 8:30etik 13:30era egoteko aukera izanen dute. Bestalde, garileko eta agorriko astegunetarako, 10:00eta-

tik 13:00etara, Aisiaz Blai eskaintza izanen da 4 eta 12 urte bitartekoendako. Bi hilabete horietan hamabostaldika izena emateko aukera izanen da.

Garilean Aisiaz blai programan izena ematen dutenek Kirolaz blai programarekin uztartzeko aukera izanen da, begiraleak joan-etorriak koordinatuko dituztelako. Kirolaz ari garela, Altsasuko Udaletik jakinarazi dute, Zelandi kirol gunean udarako hainbat jarduera izanen direla. Gainera, heldu den ikasturtean kirol eskolaren batean seme-alabak apuntatu nahi dutenek horretarako aukera zabalik dute. Gaurtik garagarrilaren 10era bitartean eman daiteke izena, 012 telefonoan. Ordainketa kutxa edo banku bidez egin beharko da.

Prezioak, hobariak eta salbuespenak

Jarduerengatik ordaindu beharre-



Aisiaz blai programan gustura pasatzen dute neska-mutikoek.

koa familien errentaren arabera izanen da. Aurreko urteetan bezala, udalak lau maila zehaztu ditu eta maila bakoitzaren arabera, kopuru bat edo beste ordaindu beharko da. Matrikuletan hobariak izateko aukera zehaztuak daude ere. Ordainketen salbuespenak kasu hauetan daude aurreikusiak:

Altsun duela sei hilabetez errolatutako pertsonak, baldin eta udalari alde aurretik ez ordaintzeko eskaera egiten badiote, eta egoera larrian daudela egiaztatzen duen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostena aurkezten badute. Informazio gehiago www.alsasua.net/eu/ web orrian dago.

» Arakil / Irañeta

Astelehen Zoriontsuen segida

Astelehenean, 19:30ean, Irañetako Txapel Azpi elkarteak elkartuko da euskaraz hitz egitea helburu duen taldea

Gai bat hartu eta horren inguruan euskaraz hitz egitea. Horixe da Astelehen Zoriontsuak taldearen helburua. Hizketarako gaiak irakurritako testuetatik (artikuluak, erreportajeak, liburuak) edo ikusitako ikusentzunezkoetatik (telebista saioak,

filmak, sareetako bideoak) hartzen dituzte. Aurreneko saioan (apirilaren 18an), esaterako, Bidador pastoralaren proiektioak eman ziren esana. Bigarren saiorako gaurkotatutako gaia aukeratu du Astelehen Zoriontsuak taldeak: paradisu fiskalak. Iritziak euskaraz partekatzea nahi duten guztiak “esku zabalik” hartuko dituzte. Astelehen Zoriontsuak taldeak azaldu dutenez, sortu berriak dira eta antolakuntzak taldekideen ekarpenarekin egiten du aurrera.

» Olatzagutia

Udaberrian, loreak

Zazpi postu egon ziren

Eguraldi txarrari aurre eginez, 9. Lore Azoka kiroldegian ospatu zen. Lorategietarako eta balkoietarako loreak, baratzerako landareak... denetarik saldu zuten zazpi postuetan. Aromaterapia eta landare produktuak baziren. Gainera, eskuak hennarekin apaintzeko aukera zegoen, baita apaingarri eta fafutxen postu bat ere. Umeendako tailerrak izan ziren.



Loreak erosten. ERKUDEN RUIZ BARROSO

» Izurdiaga

Herri lanetan murgilduta

Trenbide gaineko zubia jasotzeko lanei ur hornidura berritzeko lanak gehitu zaizkie

Izurdiagak itxura berritua hartuko du hemendik gutxira. Batetik, trenbide-pasa kentzeko lanak zitu bizian doaz. Herri erditik pasatzen da trenbidea eta aspaldiko eskaera da trenbide-pasa hori kentzea. Izan ere, egunero batz besteko 357 ibilgailuko trafiko intentsitatea du Izurdiagako trenbide-pasak, eta ibilgailuak hura ez zeharkatzeko dagoen segurtasun sistemak askotan izan ditu akatsak eta susto ugari izan dira. Azkenean, Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministerioarekin eta Renfe/Adifekin sinatutako akordioari esker, 2015eko agorrila akaberan hasi ziren lanak. Abuztura-ko despeditu nahi dituzte lanak. Zubia eraiki dute, argiteria berria jartzen ari dira, hidroereitean dabilta eta hemendik gutxira zolatze lanekin hasiko dira. Excavaciones Fermin Osés, S.L. enpre-

sa ari da trenbide-pasa kentzeko lanak egiten eta euren truke 2.167.232,88 euro jasoko ditu (BEZa kanpo).

Ur hornidura hoditeria berritu

Eta horri lotuta, ur hornidura berritzeko lanak hasi ziren duela aste pare bat. Izurdiagako ur hornidura errepidetik doa. Bertatik pasatzen den zirkulazioaren eta, bereziki, kamioi eta ibilgailu pisutsuen eraginez nahikoa hondatuta zegoen errepidea eta baita ur horniduraren hoditeria ere. “Bi lanak egiteko Nafarroako Gobernuak inplikatu nahi genuen, baina Herri Lan Departamentuak zorua berritzeko ardura hartu zuen, ez, ordea, hoditeria berritzearena. Guk lan guztia batera egin nahi genuen, ez duelako zentzurik asfaltatu berri dagoenean atzera ere dena puskatzea, hoditeria berritzea. Eta, azkenean Arakilgo Udalak hartu ditu bere gain hoditeria berritzeko lanak. Lanak duela aste



Ur hornidura sare berritzeko lanei ekin zaie ere Izurdiagan.

pare bat hasi ziren eta gero zolatze eta asfaltatze lanak egingo dira” azaldu digu Izurdiagako Kontzeju buru Luis Migel Beraza Ameztegik.

6.900 euroko aurrekontua

Izurdiagako Kontzejuak 2016ko aurrekontua onartu du. Kontzejuak 6.900 euro kudeatuko ditu aurten. “Aurten kontzeju etxearen konponketekin jarraitzeko zehaztu dugu aurrekontuaren zati bat. Orain arte udaletxeko bri-

gaden bitartez lan batzuk egin ditugu: kontzeju etxeko zorua barnizatu, teilatua konpondu... Aurten komuna txukuntzea da asmoa. Kontzejuak materiala jarriko du eta Arakilgo Udalak langileak” aipatu digu Beraza kontzeju buruak. Ohiko gastutara bideratuko da gainontzekoa. “Arakilgo Udalak urtero diru bat banatzen die kontzejuei, baina gurean hoditeria berritzeko lanak egiten ari direnez eta Satrustegi beste obraren bat, ez dugu

diru hori jasoko. Hortaz, diru-sarrerara hori ez dugu izango” gaineratu du Berazak.

Kontzeju buruak adierazi digunez, Izurdiagako Kontzejuaren asmoa datorren urteetan komunalean lan batzuk egitea da. Batetik, komunaleko bideak konpondu nahi dira eta, bestetik, kontzejuak larre bat alokatzen du, diru sarre-ia bakarria dena, eta eremu horretan inbertitu nahi du kontzejuak: itxiturak konpondu, sasi-garbitzeak, ur puntuak jarri...

» Altsasu

Aniztasunaren zelai handia

Zelandi eskola publikoan ostiralean despeditu ziren Aniztasun Asteko jarduerak. Haien balorazioa egiterakoan Mank-eko Immigrazio Zerbitzuko Bego Zestau Baraibarrek esandigu, “goizeko eta arratsaldeko saioetan hobekuntza eman da. Parte-hartzaileek gustuko izan dituzte saioak eta denak pozik irten dira. Balorazio ikaragarri baikorra da”. Badirudi hiru-garren edizio bat izanen dela, eskolako zuzendaritza ere esperientziarekin pozik baitago.

Bi asteazkenetan Zelandiko 400dik gora ikasleek Txina, Maroko, Portugal, Altsasu eta Alemaniako txokotatik pasa eta lurralde bakoitzeko jakien, istorioen, kondairen, janzkeren eta bestelakoen berri jaso zuten. Txoko horietan argibideak ematen zituztenak ikasle batzuen amak ziren eta horrek “emozioberezia sortu du” Zestauk azaldu digunez. Arratsaldeetan, gurasoei zuzendutako saioak zuden: Altsasura etorritakoan izandako zailtasunak eta munduan barnako hezkuntza sistemei, osasungintzari eta sukaldaritzari buruzko elkarrizketak izan dira. “Taldepolita elkartu da. Harremanak sortu eta estutzea ekarri du horrek. Orain elkarlaguntza eta ezagutzen dute. Gurasoek hori baikorki baloratu dute”. Irakasleek, bestalde, txokoen edertasunaz aparte, haien heziketa balioa nabarmendu dute: “ikasleek asko ikasi eta gozatu dute”. Aniztasunaren Astea antolatzerakoan Zelandi eskolak, guraso elkarteak eta ama taldeak izan duten prestutasuna eta eman dituen erraztasunak aitortu eta eskertu ditu Zestauk.

» Unanu

Maistruban itxie konponduko du kontzejuak



Unanuko Kontzejuak 40.000 euro inguruko aurrekontua zehaztu du lanetarako

Unanuko Kontzejuak 2016ko aurrekontua onartu du. Guztira, 94.220 euro erabiliko ditu Unanuk aurten go egitasmoak aurrera eramateko. Egitasmo nagusia Maistruban itxie izenez ezagutzen dena konpontzea izango da. Javier Mozo alkateak azaldu digunez, herriarena den etxe horren egoera oso kaxkarra da, eta kontzejuaren asmoa etxea konpondu eta gero alokairuan jartzea da. “Itsesurak, hezetasunak eta beste dituzte etxeak, eta egoera oso kaxkarraren dago. Auzolanean egin ditugu lan batzuk, pladurrekin eta banaketak egitea, baina oraindik asko dago egiteko, itsesurak konpontzeko hasi, sukaldeak eta komunak jarri eta guztia ongi uztera arte. Etxea konpondu eta alokairuan jartzea da asmoa, gerora ere diru iturri bat izateko” azaldu du alkateak. Aurrekontuan 40.000 euro jaso dira Maistruban itxie konpontzeko. Diru-laguntzak ere eskatu dira, eta horien erantzunaren esperoan daude Unanuko Kontzejuak.

Hori izango da kontzejuko lanik garrantzitsuenak. Bestela, ohiko gastuei eta lanei aurre egiteko erabiliko dute gainontzeko aurrekontua.

» Lizarraga

Bideak konpondu, hondakinak jaso

Herri txikia izanda gauza handirik ezin dela egin baina aurtengorako Lizarragako Kontzejuak asmo batzuk badituela azaldu digu Xabier Senarrek, kontzeju-buruak. Dermioko bideak konpondu eta ezpondak garbitzeko asmoa dute eta diru-laguntza eskaera egin ere. “Joan den astelehenera erauntsien txandria eta gero” premia badagoela nabarmendu digu. Lizarragako kontzejuak eginen duen beste lan bat da “jendeak edozein tokitan botatako obra hondakinak jasotzea eta garbitzea”. Senarrek azaldu digunez, “beste herrietako jendea etortzen da eta non-nahi botatzen du. Portuan eta dermioan. Hondakin horiek jasotzen ez baditugu, salaketa”. Hondakinak behar bezala kudeatzeko eskaera egin du.

Kanpo santua

Lizarragako Kontzejuak zerbitzu



Lizarragako kaleetako ezpondak garbitzeko asmoa du kontzejuak.

hori arautzen duen ordenantza onartu du. Orain arte herrian bizi zirenak eta herritik kanpo bizi zirenen seme-alabak hartu ditu hilerriak. Etorkizunean ere hala izanen da. Baina herrian bizi zirenek dohainik izanen dute. Herritik kanpo bizi diren lizarratarrek sorlekuko hilerrian lur emateagatik

pagatu egin beharko dute. Senarrek azaldu digunez, “gastua zegoen eta lehentasuna herrian bizi zirenei ematea erabaki dugu”. Salbuespenak ere badaude. “Herrian bizi, gaixotu edo bakarrik ezin bizi eta egoitzaren batera joan behar izan dutenek ere doan izanen dute lur ematea”.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubeztia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionalazate.com

www.pescaderiamariaeugenia.com

Arratsaldez zabalik

maríaeugenia Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

>> Altsasu

Nipon, Cake eta Kimaren lagun berriak



Bocalan Biak Bat fundazioak Aita Barandiaran adinduen egoitzara bisita egin zuen asteartean.

Izen horiek dituzte Bocalan Biak Bat fundazioak Aita Barandiaran adinduen egoitzara eramane dituzten hiru txakurrak. Egoitzak mende laurdena betetzen zuela kontuan izanik, maiatzeko hiru egunetan izan dira bisitan egoitzan. Azkena, asteartean. Fundazioko kideekin batera joan zen Guaixe bisitan eta egoitzan bisitaren zain zeundela nabarmen ikusi zuen. Egoitzan dauden 18 adindu izan dira terapia txakurrekin egin diren saioetan parte hartu dutenak. Askok haien izenak gogoratu zituzten eta hasieratik haiek laztantzeko nahia azaldu zuten.

Bocalan Biak Bat fundazioko Josune Azpirozek azaldu digunez, "adinduek ongi pasatzen dute saioetan. Haiendako txakurrak estimulu berri bat dira. Gehienek txakurra izandakoak dira eta oroitzapenak berritzen dituzten. Oroitzapen positiboak izaten dira". Egoitzan bizi direnei animaliak gertu eta ukitzeko aukera dituztenean aurpegian duten aldaketa nabaria da. Pentsu aleak jaten ematen ere gozatu dute.

Saioa

Azpirozek argitu digunez, hiru

saiotan txakurrekin lagunduta gaitasunak mantentzeko jarduerak egin dituzte. Borobil handi bat osatuz, adinduak eserita itxaron dituzte bisitariak, txakurrak. Fundazioko kideak adinduei txakurrak banan banan agurtu eta haiek laztantzeko aukera eman diete. Gonbidapena ez du inork ukatu.

Agurren ondoren, hiru taldeetan banatu dira eta bakoitzean txakur bana egonda. Hotzaren eta beroren inguruko ariketa bat egin zuten azken egunean. Lehenik bakoitzari fitxa bat eman zioten txakurrak gainean zeraman itsasgarran itsatsi behar zutena. Bigarren buelta batean txakurraren bizkarraren zeuden fitxak bat hartu eta zegokion panelean jarri beharra zuten. Saillkapena osatzeko zutitu eta ibili beharra zuten. Ederki egin zuten. Eta aukera zuten guztietan txakurrak laztantzeko aukerak ez zituzten galdu. Aita Barandiaraneko "talde parte-hartzailea" izan dela gaineratu digu fundazioko Azpirozek. Adinduek saioak "motibatuta" hartu dituztela eta esker ona azaldu dutela gaineratu du.

"Lohitan"

Fundazioko kide Josu Mendezek

esan digunez, "halakoak egitea lohitan sartzea da". Fundazioak trebatzen dituen ikasleek ari da. Aita Barandiaran egoitzako hiru saioetan izan dira, aurretik Gasteizko Aspacekoekin eta Sakana-ko Anfasekoekin ariko dira heldu den astean. Saio horietan Bocalan Biak Bat-eko begiraleekin batera, ikasleak ari dira. Haiek dira saioetan txakurrak gidatzeaz eta dinamika garatzeaz arduratzen direnak. Halakoetan ikasitako teoria praktikan jartzen dute ikasleek.

Fundazioak aurten 20 ikasle ditu, Gasteiz, Goierri, Errioxa eta Donostialdekoak. Euren egoitzan esku-hartze terapeutikoak nola egin ikasten dute. Hau da, txakurrak nola entrenatu, esku-hartzea diseinatu eta programa nola garatu. Sei hilabeteko prestakuntza da. Hartan txakur hezitzaileak, entrenatzaileak, psikologoak, fisioterapeutak eta bestek ematen dute izena. Ikasitakoari segiz, txakurrak eta talde dinamika garatzeaz aparte, etengabe adinduekin harremanetan izan ziren begiraleak. Bocalan Biak Bat fundazioaren lan egiteko moduaren aparteko lekuko Javier Ollo Martinez alkatea izan zen.

>> Etxarri Aranatz



Joxe Aldasoro, Madrilén.

Akordioa eginda, etxera

Fiskaltzarekin eta akusazio partikularrekin (AVT eta Dignidad y Justicia) akordioa lortuta, 3/2013 sumarioko bederatzia auzipetuak epaia-zen zain gelditu dira. Ekinekoak izatea egotzita Joxe Aldasoro Jaurerri eta beste zortzi euskal herritar epaitzekoak ziren hurrengo hiru asteetan. 9 eta 15urte bitarteko espetxe zigorrak eskatzen zituzten haiendako. Dignidad y Justicia esana zuten ez zuela akordiorik nahi, baina jarrera aldatu eta akordioa lortu zuten asteartean.

Segurako auzikoek eta Ekineko aurreko epaiketan adostutako testuan jasotakoa da bederatziek onartu dutena. Hala, egotzitako gertakariak aitortu dituzte (bile-erak egitea eta dokumentazio politikoa izatea) eta onartu dute jardun hori legez kanpoko zela. Gainera, uko egin diote indarkeriaren erabilari, eta beren nahia agertu dute horrek "terrorismoaren biktimen erreparazioari ekarpena egin diezaion, eragin zaien min eta sufrimenduagatik". Akordioaren arabera Aldasorok bi urteko espetxe zigorra eta epe berean kargu publikoa izateko inhabilitazioa jaso du. Etxarriarrak ez du kartzelan sartu beharko -inkomunikazio aldian torturak salatu zituen eta behin behinean 22 hilabete eman zituen- eta inhabilitazioagatik Etxarri Aranazko Udalean zinegotzi kargua utzi beharko du.

Adierazpenak

Bederatzia auzipetuak sentipen "gazi-gozeekin" bueltatu ziren Euskal Herrira. Haietako bati jarritako zigorreratik espetxera bueltatzeko aukera dago, "balintzapean askatasunean zuzenean jartzeko aukera dago", azaldu digu Aldasorok, "baina oraindik ez da argitu". Bederatzien sentipen "gazi-gozea" ere azaldu digu: "akordioa sinatu dugu, baina ez da justiziarik egin. Lan politikoa egiteagatik zigortu gaituzte".

Sakana

Zahar-etxe atseginen alde

Pasa den astean Altsasuko azokan zabaldu zuten mezu bera Etxarri Aranazko azokara eramane dute Sasoia, Nafarroako Jubilatuen elkarteko kideek astelehenean, 11:00etan. Elkarrekin zahar-etxei buruzko ikerketa egin du eta haietan hainbat gabezia opatu ditu. Haien salatu eta adinduendako erresidentzia atsegina gogak aldarrikatuko dituzte. Horrekin batera, jubilatuen eta pentsiodunen arazo sozial eta eskubideen inguruko hitzaldia antolatuko dute Sasoia. Asteazkenean izanen da eta EH Bilduko parlamentari bat izanen da hizlaria.

>> Altsasu

Bizikleta egunak Iñigo Aritza ikastolan

Herenegun izan zen aurrenekoa eta garilaren 3an eta 10ean izanen dira hurrenak. Bizikleta egun horietan Iñigo Aritza ikastolako ikasleak ikastetxera bizikletaz joanen dira. Urdiaindik, Olatzagutiatik eta Ziordiatik ikastolara joaten diren ikasleek ere badute ekimenean parte hartzeko aukera, baina horretarako Altsasura joan beharko dute. Ikastolako tropela Zumalakarregi plazatik abiatuko da 8:30ean eta lau geldialdi eginen ditu, txirrindulari gehiago gehitzeko. Herrirako bueltan tropela 13:00etan abiatuko da geldialdiak eginez eta Zumalakarregi plazan bukatuz.

>> Altsasu

Txioan matrikulatzeko aukera

Haur ikastolak jakinarazi duenez, heldu den ikasturtean haienean matrikulatzeko aukera dago oraindik. 16 aste eta 3urte bitarteko umeek emandezakete izena. Ikasturtean zehar gelak osatzeko aukera dagoela gaztigatu dute. Informazio nahiduna Txioatik pasa daiteke, 948 373 023 telefonora hots egin edo txioa.haur.ikastola@inigo-aritza.eus e-posta helbidera idatzi. Txioa Haur ikastola ezagutu nahi duenak bloga duteskura: <http://txioa.blogspot.com.es/>

>> Etxarri Aranatz

Guardia Civilaren domina Extremerari

PPren Mendialdeko batzordeko buru eta Etxarri Aranatz zinegotzi den Juan Antonio Extremerak Espainiako Barne Ministerioak ematen duen Guardia Civilaren bereizgarri txuriko Merituaren Gurutzea jaso du. Segurtasun indarrek proposatu zuten aitortza horretarako eta ostegunean Jorge Fernandez Diaz ministroak jarri zion domina. Hala, Extremerak indar armatuen eta Defentsarekin zerikusia dutenekin egindako merituak aitortu zituzten.

Sakana

Txirrinka martxa Sakanan

Abiadura Handiko Trena (AHT) eta proiektu txikitzaileak borrokatu! Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu! Lelo hori du bihar abiatuko den bizikleta martxa. Hego

Euskal Herriko lau hiriburuetatik abiatuko da, igandean Bergaran elkartzeko. Iruñeko Gaztelu plazatik tropela 11:00etan aterako da. Oskian barna Sakanan sartu

eta Arakil eta Aranatz zeharkatu ondoren, Lizarrustitik utziko du ibarra. Lekukoa 9tan pasako da. Informazio gehiago azken orriko elkarrizketan.

Txirrinkaren ordutegia

Ordua	Taldea	Ibilbidea
14:33	Erauzketaren aurkako taldeak	Atondoko benta-lrurtzungo plaza.
14:57	Arakil eta lrurtzungo kultur taldeak	lrurtzungo plaza-Hiriberri
15:32	Sakanako sindikatuak (EHNE, LAB, ELA)	Hiriberri-Uharte Arakil
16:04	AEKko irakasleak eta Altsasu-Etxarriko EHE	Uharte Arakil-Lakuntza
16:28	Maripiper taldea	Lakuntza-Etxarri Aranatz
16:52	Talde antimilitaristak (Bardenas Ya! eta KEM)	Etxarri Aranatz-Bekola aurretik
17:11	Sakanako gaztetxe eta gazte asanbladak	Bekola aurretik-Lizarrusti gaina
17:32	Altsasuko herri mugimendua	Lizarrusti gaina-Aiako bidegurutzeara
17:46	Sakanako Amalurraren Defentsa	Aiako bidegurutzeara - San Martin

» Irurtzun

Asteburua Trinitate festei eskainita

Erga mendi gaineko ermitaren titularraren ospakizuna igandean da eta irurtzundarrek asteburua hartuko dute festarako. Irurtzungo Kultur Kontseiluak musikaz eta kirol ugariz osatutako egitaraua ondudu. Igandeko erromesen aurretik ermitara lehenik korrikalariak igoko dira bihar. Mendi puntarako bidea egin ondoren, eguerdi eta arratsaldez kirol eskaintza zabala izanen da Irurtzunen. Tartean, indarrak hartzeko, 120 pertsona elkartuko dituen herri bazkaria ere. Larrazpi elkartearen jarriko dituzte gauerako doinuak, bai gaur bai bihar. Etzi, berriz, Trinitateko ermita makina bat jenderen topaleku bihurtuko da atzera ere.

Egitaraua

» Maiatzak 20, ostirala

23:00etan Kontzertuak: Mitosia eta Lur-J. DMDA dj-k. Larrazpi gazte elkartearen.

» Maiatzak 21, larunbata

10:00etan III. Ergako Trinitatera erlojupeko igoera, Aska plazatik. Izen ematea, 9:30ean. Guan taldea.

11:00etan XXIV. Irurtzungo Pilota Txapelketako final erdiak.

12:00etan Kirolak euskaraz. Foru plazan. Aizpea euskaltzaleen topagunea.

14:30ean Herri bazkaria, Barazki gunen.

16:00etan XXVIII. Irurtzungo Karate Txapelketa. Shotokan taldea.

17:00etan Kalejira Txorongo Txarangarekin, karpatik.

22:00etan Larrazpitek: Chema Mox, Xcire, Gorka, Iana, Jon Maraka eta Koke. Larrazpi gazte elkartearen.

» Maiatzak 22, igandea

11:00etan Erromeria Ergako Trinitatera.

17:00etatik 20:30era Denendako jolasak eta puzgarriak, Foru plazan.

» Bakaiku/Iturmendi

Santa Marinan da hitzordua

Bakaikuarrek eta iturmendiarrek Santa Marinarako bidea hartuko dute domekan. Goiz hartuko dute mendiko bidea, eguerdirako han izateko. Ermita elizkizuna hartuko du. Santa Marinarako plazan elkartuko diren bakaikuarrek eta iturmendiarrek auzatea izanen dute ere, Bakaikuko Udalak eskainia. Hari baitagokio aurten festaren antolakuntza. Auzatearekin batera, musikak giroa alaituko du. Mahaira eseri eta bazkari ederrez gozatzeko aukera izanen dute batzuk eta besteek. 18:00etan herrietarako bidea hartuko dute. Bakaikuarrek, aspaldiko partez, Dantzalarreko geldialdia berreskuratuko dute. Garai batean bezala, menditik herrira txistularien laguntzaz jaitsiko dira eta Barga erdialdean dagoen Dantzalarren auzatea eta dantzaldi laburra egingen dute. Horretarako propio, auzolanean garbitu zuten larunbatean inguru hori. Hangoak despedituta, dantzarako doinu gehiagoplazan izanen dira: Dj Jotaxok 19:30etik 23:00etara doinu dantzagarriak jarriko ditu.

» Lakuntza

Cava festa asteburua hasteko...

Gaurtik igandera kalitatezko 10 cava dastatzeko aukera izanen da Lakuntzako pilotalekuan

Cava festaren hazia joan den urteko Lakuntzako festetan dago, San Sadurn d'Anoiatik correfoe ikuskizuna eskaintzera etorri zirenean. Adiskidantza sortu lakuntzarrek bisita bueltatu zieten. Kataluniarrek euren produktu izarraren, Cavaren inguruan, Lakuntzan festa antolatzeko proposamena luzatu zieten. Bi herrien arteko adiskidantza sendotzeko aukera zelakoan Lakuntzako Udalak erronkari heldu zion. Hala, azaldu digu Cava festaren sorrera Aitor Gartzia kultura zinegotziak.

Dastatuko diren edari apardunak "familia xumeek ekoiztutakoak dira. Cava oso onak dira. Batzuk izena dute." Dastatzeko egonen diren cava gehienak "gama altukoak dira eta bakarren bat gama ertainekoa da", zehaztu du Gartzia. Goren mailako kopak



Asteburu guztian festa giroa izanen da Lakuntzan.

hiru euro balioko ditu eta bi mila ertaineko cavarena. "Publizitateak ezagun egin dituen marka horietako bat bera ere ez dugu izanen."

Frontoiak hartuko du Cava Festa eta edozein ospakizunetan edariarekin batera jatekoa ezinbestekoa denez, cava edanez bazkaldu

edo afaltzeko aukera izanen da. Propio barra eta mahaiak jarri dituzte. Sukaldeaz Txomin parri-la enpresa arduratuko da. Bertako produktuak, Nafarroakoak gehien bat, parrilan prestatuko ditu. Frontoian ere eszenarioa izanen da. Txingurriye elkarteak kideak eta lakuntzar mordo baten

»

Lakuntzako azoka berreskuratzea egokia litzatekeela pentsatu zuten udalean. "Azken finean Sakanari bultzada bat ematea da. Sakanak gerturatzea eta jendeak hor egoitea behar du. Ez da bakarrik industria izan behar, denon aldetik zerbait eman beharra dugu". Azoka berreskuratzeke erabakia hartuta, noiz egin izan zen zalantza. "Data bilatzen hasita hau baino beste hoberik ez zitzaigun bururatzin: Cava festak jendea ekarri behar du, eta bata bestea lagunduko du. Guretako lan gehiago da, baina..." Guztia behar bezala prestatzen Cederna-Garalurreko Susana Mendinuetaren laguntza izan dute eta Gartzia bere lana eskertu du.

Txistorra, euskal pastelak, gazta, goxokiak... Bertako makina bat jaki erosteko aukera izanen da igandean produktu horiei eskainitako azokan. 34 ekoizle jarriko dituzte postuak plazan. Haiekin batera artisauak lanean ikusi eta euren eskulanak erosteko aukera izanen da. Mikel Arregi kalean dozena bat artisau elkartuko dira.



Eguerdian ganadu erakusketa izanen da plazaren beheko aldean.

Herriko tabernatan jan edana izanen da, baina bestelakorik nahi duenak 11:00etatik aurrera izanen du aukera Cava gunean.

Eguerdian ganadu erakusketa izanen da, plazaren beheko aldean. Behiak, ardiak, ahuntzak, pottokak, zaldiak, txakurrak...

Lakuntzako azienda gertutik ikusteko aukera izanen dute bisitariak. Gosea dutenek Lakuntzan bertan bazkaltzeko aukera izanen dute. Cava gunean herri bazkaria izanen da. Nafarroako txekorria eta basatxerria prestatuko dituzte Cava gunean. Jaki horiek eta bes-

Egitaraua

» Maiatzak 20, ostirala

20:00etan Herri brindisa.
23:00etan Entzun zak taldearen kontzertua.

» Maiatzak 21, larunbata

12:00etatik 2:00etara Cava festa.

12:00etan Gure Esku Dagoren ekitaldia.

16:00etan Diablos sem'in refum taldearen versots irakurketa.

20:00etan Catalunya eta Euskal Herriaren arteko brindisa.

20:30ean Haurren correfoe ikuskizuna, pilotaleku ondoan.

23:00etan Lakuntzan Kantuz, musika saioa.

» Maiatzak 22, igandea

11:00etatik 18:00etara Cava festa.

*Cava gunean bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egonen da.

Cava eskaintza

Llopert, Olivé Batllori, Colomer, Pere Mata, Gramona, Vilarnau, Varias, Agusti Torello Mata, Segura Viudas, Oliver eta Mainegra.

laguntzari esker Cava festa auzolanen egingen da.

... bertako produktuen azoka asteburua bukatzeko

te batzuk dastatu nahi dituztenek gunean bertan txartelak erosteko aukera izanen dute.

Gehiago: www.guaixe.eus

Oharra

Larunbata eguerditik Mikel Arregi kalea, plaza inguruan, eta erdiguneko beste kale batzuk oinezkoendako izanen dira.

Egitaraua

10:00etatik 15:30era Bertako produktuen azoka.

Artisau produktuen azoka. Trikitilariak.

11:00etan Cava gunearen irekiera.

12:00etan Ganadu erakusketa. Aizkolariak.

14:00etan Herri bazkaria.

MANIFESTAZIOA

EKAINAK 4 - 17:30 - >>>>>

>>>>> IRUÑEA - (GOLEMETATIK)

guztiz euskaraz bizi nahi dugu

KONTSEILUA



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



**Anttoni Aldasoro
Milagros Artieda
Jose Ramon Anso
Jorge Ijurko
Iñaki Orce**

Beti gogoan
59ko kintoak



Iosu Anduaga Goñi
VI. urteurrena

Zure bihotzak
gurekin
jarraitzen du

Zu familiye



**Oroigarriak
egiten
ditugu**

Nahi duzun
argazki
eta testuarekin

gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1
Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

Benita Ijurko Mendiola
*Harengandik ikasi genuen esker onekoak izaten.
Eskerrik asko denei hor egoteagatik*



Familia

Jose Miguel Olano
VI. urteurrena
Meza Lakuntzako elizan, maiatzaren 22an,
igandean, goizeko 11:00etan



Beti egonen zara gure bihotzean
Zure familia

**Roberto Etxeberria
Aritz Artieda**



Beti gukin
Etxarri Aranazko 78ko kintoak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte
jasotzen ditugu.
Euskara hutsean argitaratuko dira.



**Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era
edo hots egin 948 564 275 telefonora**

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Urdiaingo Udalak aisialdirako begiralea behar du. EGA ezinbestekoa, magisteritza ikasketak, CV-ak udaletxean jasoko dira.

Urdiaingo igerilekuetan soroslea behar da. Lan horietan aritzeko, sorosle titulua, D.E.S.A ziurtagiria behar da. Interesatuak, maiatzak 31 baino lehenago, Aitziber elkarteak emailera bidali beharko du kurrikuluma, aitziberelkarte@gmail.com

LAN ESKARIA

Sukaldaritza-laguntzailea lana bilatzen ari da, eskarmentua du. Zuriñe 600 27 73 03.

Higiezinak

ETXEAK

SALDU

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

Pisua salgai Altsasun. Jantzita. Tel 618 19 07 24.

Etxe bat saltzen da Lakuntzan 76 m², beheko solairua da eskailerarik gabe, eta 187 m²ko lursaila borda batekin. Tel 948 46 15 94.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lizarragako Azi Iturri elkartea alokagai San Adringo festetan. Enkantea ekainaren Sean goizeko 12:00etan Azi Iturri elkartean. Gutxienez 600 €. Festak ekainaren 18an, 19an eta 20an.

Aurten, Urdiaingo igerilekuak hartu nahi duten guztiak, Urdiaingo Aitziber elkartera etorri beharko dira, ekainak lein, asteazkena, gaueko 20:00etan. Interesatuak "proiektu" bat aurkeztu beharko dute. Adkudikazietako baldintzak bete beharko dira. Baldintza hauek aitziberelkarte@gmail.com posta elektronikoki bidez eskatuko dira.

Opatutakoak/ Galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

GALDUTAKOAK

Lizarragako tunelean Volvo kotxeko giltzak galdu ditut. Opatzen badituzu, mesedez, deitu 678 58 77 42 telefonora

JAIOTZAK

- Imran El Idrissi Dghoughi, maiatzaren 9an Altsasun.
- Shia Gutierrez Barreira, maiatzaren 9an Altsasun.

EZKONTZAK

- Jesus Maria Ganuza Borrega eta Julia Lopez Cancho, maiatzaren 9an Altsasun.

HERIOTZAK

- Maria Teresa Razkin Marin, maiatzaren 9an Lizarragan.
- Martin Senar Andueza, maiatzaren 11n Lizarragan.
- Benita Ijurko Mendiola, maiatzaren 14an Etxarri Aranatzen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

SOKATIRA

BERIAIN LAUGARRENA NAFARROAKOAN: Txapelketan Basaburua A izan zen txapel-duna. Andra Mari ikastolako Beria in taldea Sokatira Txapelketa. Kadeteen 280 kiloko

Txapelketan Basaburua A izan zen txapel-duna. Andra Mari ikastolako Beria in taldea laugarrena sailkatu zen.

Pilota

XXIV. Irurtzungo Txapelketa finalerdietan

XXIV. Irurtzungo Txapelketa azken txanpan murgildu da. Asteburu honetan promesen eta senior mailako lehen finalerdiak jokatu dira. Beste finalerdiak maiatzaren 29an erabakiko dira eta txapelketako final handiak garagarriaren 4an erabakiko dira.

XXIV. Irurtzungo Txapelketako finalerdiak

Promesak:

Zudaire-Eskudero / Santesteban-Aizpurua

Seniorrak:

Yoldi-Gorriti / Arrieta-Arratibel

*Oharra: Emaizak: www.guaixe.eus



XLV. OLAZTIKO SAN MIGEL TXAPELKETA

4. jardunaldia jokoan

Asteburuan XLV. Olaztiko San Migel Elkarte Pilota Txapelketako 4. jardunaldia jokatu da.

4. jardunaldia

Ostiralean, 20:00etan

3. maila: Ortiz-Mazkieran / Azparren-Agirre

2. maila: Ginea-Lizarraga / Elorza-Urbizu

Nagusia: Matxin-Elizegi / Landa-Lorea

1. maila: Lopez de Zubiria-Garziandia / Loban-Arbizu

Larunbatean, 17:00etan

3. maila: Sobredo-Bobillo / Ruiz de Egin-Galartza

2. maila: Gelbenzu anaiak / Tuero-Goñi

1. maila: Senar-Alustiza / Ijorra-Zubieta

*Oharra: Emaizak: www.guaixe.eus



Arbizuk eta Burlatak berdindu

Herrien Arteko Txapelketako 2. jardunaldia bi taldeek berdindu zuten.

Emaizak:

Arbizu 2 / Burlata 2

Kimuak: Imaz-Lakuntza (Arbizu) 18 / Caño-Alzueta (Burlata) 1

Haurrak: Lima-Ganboa (Arbizu) 18 / Arizaleta-Lapeire (Burlata) 2

Gazteak: Nazabal-Goikoetxea (Arbizu) 8 / Mugiro-Eskiroz (Burlata) 22

Seniorrak: Arruti-Agirre (Arbizu) 5 / Olano-Rebolé (Burlata) 22

Atletismoa

XII. Aitzkozar krosean Larraza korrikalari bakaikuarra gogoan

Larunbatean jokatu da lasterketa, Bakaikun. 17:00etan kategoria txikiko probak hasiko dira eta 18:30ean proba nagusia (8,1 km)

Aurten Bakaiku izango du hasiera eta helmuga XII. Aitzkozar krosak. Lasterketa Iturmendin hasi ziren antolatzen, baina 2010etik aurrera Iturmendin eta Bakaikun jokatu dira, txandaka. Aitzkozar eta Bakarrekotxea elkarrekin antolatzen dira proba antolatzeaz, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin eta makina bat babesleren bultzadarekin.

Bihar jokatu da proba, larunbatearekin. 17:00etan txikien mailako lasterketak hasiko dira. Aurrebenjaminak (450 m), benjaminak (560 m), haurrak (1.600 m) eta kadeteak (2.400 m) Bakaikuko kaleetan barna ariko dira korrika. 18:30ean hasiko da proba nagusia. Jubenilek Bakaiku eta Iturmendi artean presatutako zirkuituari buelta bakarria eman beharko diote (4,050 km) eta helduek, aldiz, bi itzuli (8,1 km).

Aurreko urtean 164 korrikalari aritu ziren guztira, eta Antonio Etxeberria (39:17) eta Izaskun Beunza (48:22) izan ziren irabazleak.



Aurten Iturmendiri Bakaikuk hartuko dio lekukoa.

Oparia eta merienda

Proba bukatzen duten korrikalari guztiek oparia jasoko dute. Bestalde, lasterketa nagusiko irabazleek, gizonen nahiz emakumeek, trofeoak jasoko dute. Eta indarrak berreskuratzeko auzate bikaina egongo da.

Izena emateko

Egunean bertan Bakaikuko Bakarrekotxea elkartean, proba hasi baino ordu bat lehenago. Kuota: 5 euro.

Lukas Larrazari omenaldia

Aitzkozar krosak Lukas Larraza korrikalari bakaikuar handia omenduko du bihar. Lukas Larraza 1929an jaio zen eta krosean espezialista handia izan zen. Nafarroan federaziorik ez zegoenez, Gipuzkoakoarekin lehiatu zen. Nazioetako Krosean egungo Munduko Kros Txapelketa- 3 aldiz internazionala izan zen, 1955etik 1957ra, Donostian, Belfasten eta Waregem. Donostiakoan 44.a sailkatu zen eta taldekako bron-

Sakanako Atletismo Kopa mustuko du

Mank-eko Kirol Zerbitzuak, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubarekin batera, XIII. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria antolatu du, atletismoa eta Sakanako herri lasterketak sustatzeko. Aurten 5 probek puntuatuko dute koparako: XIII. Aitzkozar Herri Krosak (bihar), III. Ziordiko Herri Krosak (maiatzak 28), XIII. Ergoienako Birak (irailak 17), XVI. Sakanako Herri Lasterketak (lastailak 22) eta XXXVI. Barrikarteren Oroimezko Oinezko Lasterketak (abendua 8).

Lasterketa horietan Sakanako 10 hoberenek puntuatuko dute, 10 emakumezko eta 10 gizonzko. Bost proba horietatik gutxienez lautan parte hartu beharko dute. Lehenengo hiru neskek eta hiru mutilek saria lortuko dute, kirol materialean gastatzeko diru kopurua.

tzezko domina jaso zuen. 4 aldiz irabazi zuen Mugerza Memoriala eta lautan Nafarroako txapeldua izan zen. Proba hasieran elkarriketa egingo diote eta sari ematean omenduko dute.



Goazen Etxarrin binaka korrika egitera!

Andra Mari ikastolako III. Binakako Lasterketa bihar jokatu da, 16:30etik aurrera

Kirolzaletasuna eta elkartasuna bulkatzeko eta Andra Mari ikastola laguntzeko bihar, larunbatean, Andra Mari ikastolaren III. Binakako Lasterketa-Naparpellet Saria jokatu da. Horretarako Etxarri Aranazko Udalaren, DYAREN eta Berriaren laguntza izan

dute eta Naparpelleten babesa. Aurreko urtean 153 bikotek hartu zuten parte, eta parte-hartzaeri heldu nahi diote.

Berdintasunaren alde, lilaz jantzita joateko deia

Andra Mari ikastolatik adierazi dute aurtengo edizioaren leloa "berdintasuna" dela. "Emakume eta gizonen arteko berdintasuna

aldarrikatu nahi dugu: berdintasuna enpleguan, hezkuntzan, politikan... eta kirolean ere. Horregatik lilaz jantzita etortzeko eskatzen dizuegu" adierazi dute.

Izena ematea

Lasterketa herrikoia eta irekia da, eta nahi duen guztiak parte hartu dezake. Egunean bertan, larunbatean, udaletxeko estalopean

eman daiteke izena, 16:00etatik aurrera (bikoteko 4 euro).

2015eko argazki erakusketa

Aurreko urteko Binakako Lasterketan ateratako argazkien erakusketa egingo da udaletxeko estalopean eta aurten ere parte hartzen duten bikote guztiei argazkia egingo zaie. Lasterketa bukaeran auzatea izango da.

Binaka, lau mailatan



Lasterketaren berezitasun nagusia binaka korrika egin behar izango dela da, hau da, haurrak heldu batekin batera egingo du laster. Bere gurasoa, osaba-izeba, lehengusua, bizilaguna, laguna edo dena delakoa izan daiteke.

Adin guztien parte-hartzea sustatzeko 4 maila egongo dira: haur hezkuntza (200 m), lehen hezkuntzako 1. go eta 2. mailak (400 m), lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailak (800 m), eta lehen hezkuntzako 5. mailatik gorako guztiak (2.250 m). Azken kasu horretan haurrak beraien artean elkartu daitezke bikoteak egiteko. Lehen hiru lasterketak udaletxe aurreko plazan izango dira eta azken ibilbidea herrian barna egingo da eta kontrolatua izango da, hau da, erritmo lasaia ezarriko duen txirridulariaren atzetik joan beharko da.

Emakumezkoen taldeak atsedean



Ostiralean despeditu zen 4. Sakanako Emakumeen Atletismo Eskola. Sakanako Mankomunitateak antolatu du, emakumei korrika egiteko teknika irakasteko eta emakume korrikalarien artean harremana sustatzeko, lasterketara eta beste elkarrekin joateko zubi lanak egingo. Aurten 30 emakume tratatu dira 4. Sakanako Emakumeen Atletismo Eskolan, Mikel Lakuntza Arretxe eta Aitor Mozo Villanueva begiraleekin. Ostiraletan aritu dira, lastailatik maiatzaren 13ra bitartean, Dantzaleku pistetan. 30 emakume horiek bi taldetan banatuta aritu dira: hastapen taldean eta hobekuntza taldean. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrickoitiak adierazi duenez, aurten aurreko urteetako partaidetza ona gaititu da. Mank-eko Altsasuko Udalaren eta Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren laguntza izan du.

Areto futbola

Abantailarekin Murtziara

Magna Gurpeak 4 eta 3 irabazi zion El Pozo Murciari Play-Offetako final laurdenetako joaneko partidari. Gaur itzuliko partida jokatu du Murtzian, 20:30ean

Lehen mailako areto futboleko titulu erabakitzekeko Play-Offak ongi hasi dira Magna Gurpea Xotarendako. Talde berdeak final laurdenetako joaneko partida etxean jokatu zuen, eta 4 eta 3 irabazi zion El Pozo Murcia talde ahaltsuari.

José Ruizek El Pozo aurreratu zuen lehen minutuan baina 16. minutuan Roberto Martil irurtzundarrak partida berdintzea lortu zuen. Bigarren zatia ikusgarria izan zen. Aukerak bata bestearen atzetik iritsi ziren. Limak El Pozoren bigarrena sartu zuen 22. minutuan, baina corner baten ondoren sekulako gola sartu zuen Araçak, bina berdinduz. Rafa Usinek baloi bat lapurtu zuen kantxa erdian, Dani Saldise irurtzundarrari pasa eta honek sekulako gola sartu zuen. 2 eta 3 aurreratu zen Magna, baina El Pozok hiruna berdindu zuen, Limari esker. Partida bukatzeko 43 segundoren faltan, Rafa Usinek garaipenaren gola sartu zuen.

Lehendabiziko puntua "ezinbestekoa"

"Sekulako partida izan da, futbol ikuskizun bikaina" nabarmendu zuen Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarrak. "Jokalariek partidari buelta ematen jakin izan



dute, sekulako ahalegina eginez" gaineratu zuen. Lehendabiziko puntua batzea "ezinbestekoa" zela nabarmendu zuen entrenatzaileak, baina onartu zuen El Pozo Murtziak jarraitzen duela favorito izaten, duen talde ikusgarriagatik eta kantxa faktorea alde izango dutelako.

Gaur itzulikoa, Murtzian

Itzuliko partida gaur, ostiralean jokatu duite El Pozok eta Magna Gurpeak, Murtzian, 20:30ean. El Pozo partida irabaztera eta berdinketa hausteko hirugarren partida behartzera aterako da. Hirugarren partida igandean jokatu litzateke, eguerdian. El Pozok kantxa faktorea alde izango du eta ez da ahaztu behar ligako talde ahaltsuenetako bat dela. Baina Magna Gurpea ez da kikiltzen. Ea berdeek ezustekoa ematen duten.

Triatloia

Sergio Garcia bikain Iruñeko Half Triatloian

Iruñeko Half Triatloia (1,9 km-90 km-21 km)

1.	Gustavo Rodriguez:	3:53:24
25.	Sergio Garcia de Eulate (S.T.T.):	4:20:57
86.	Javier Borrega (S.T.T.):	4:36:53
194.	Isidro Asurabarrena (S.T.T.):	4:54:53
23.	Iñaki Alvaro (S.T.T.):	5:01:41
333.	Mikel Lakuntza (S.T.T.):	5:14:13
389.	Oscar Sanz de Acedo (S.T.T.):	5:23:34

600 triatleta baino gehiagoren artean 25.a sailkatu zen Sakana Triatloi Taldeko altsasuarra

650 triatleta inguruk hartu zuten parte larunbatean Aritzaleku kanpinetik Iruñeara bitartean jokatutako Iruñeko Half Triatloian. Alkozeko urtean 1,9 km igerian ibili eta gero, bizikleta hartu eta 90 km egin zituzten, Iruñeara iritsiz. Bukatzeko, Iruñean barna 21 km-ko korrikaldiarekin osatu zuten proba. Gustavo Rodriguez (3:53:24) eta Sara Loher (4:22:10) izan ziren txapeldunak proba gogor horretan. Sakana Triatloi Taldeko 5 triatletek hartu zuten parte proba izugarri honetan eta Sergio Garcia de Eulate izan zen azkarrena, helmugara 25. postuan iritsita (4:20:57).

Lakuntzarrak Hondarribin

Larunbatean Hondarribiko Sprint Triatloia jokatu zen (750 m igerian, 21,7 km bizikletan eta 5 km korri-



Garcia de Eulate, Halfean. FOTOTRI

kan). Martin Ignazio Müllerrek (1:12:49) eta Estefania Gomezek (1:24:47) irabazitako proban Sakana Triatloi Taldeko Alejandro Zabala eta Aitor Mozo lakuntzarrak aritu ziren. Zabala 30.a iritsi zen helmugara (1:20:02) eta Mozo 32.a (1:20:20).

Gallego Gorlizen

Igandean Gorliz Badiako X. Triatloian aritu ziren triatletek (750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrika). Ander Okamika (1:06:29) eta Virginia Berasategi (1:14:55) gailendu ziren eta Trigoi taldean dabilen Iñaki Gallego altsasuarra 127.a sailkatu zen (1:24:50).

Aizkora

Etxarrik Floren Nazabal omenduko du maiatzaren 29an

Bazkari herrikoirako sarrerak salgai daude, maiatzaren 25era arte

Floren Nazabal aizkolaria k 2015ean hartu zuen erretiroa, Nafarroako Lehen Mailako Txapelketajokatu ostean. Gerrialdeko osasun arazoek bul-



katuta hartu zuen erabakia Etxarrikotxapeldun handiak. Sakanako Aizkora Eskolak, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin, merezitako omenaldia egingo dio maiatzaren 29an, 12:00etan Euskalerriri pilotalekuan hasiko den jaialdian. Aizkolaria, harrijasotzaileak, trontzalariak eta beste gerturatuko dira Etxarriko omentzera. Ondoren herri bazkaria antolatuko dute.

BAZKARIRAKO TXARTELAK EROSTEKO

Txartelak salgai daude Etxarri Aranazko Xapatero, Derry eta Iturri Eder tabernatan (20 euro), maiatzaren 25era arte. Informazio gehiago: 606 239 008.

Kiroldegia

Irurtzunen, kirola euskaraz

Bihar, 12:00etatik 14:00etara spinningean, zumban eta eskaladan euskaraz arituko dira

Kiroltan euskaraz aritu gaitzeko, inolako arazorik gabe. Hori erakutsi nahi du Aizpeak, Irurtzungo euskaltzaileen topaguneak. Horretarako Trinitateko Jaietan Kirola euskaraz ekimen antolatuko du Aizpeak, Irurtzungo Udalaren eta Kultura Kontseiluaren laguntzarekin. Kirol ekitaldiak 12:00etatik 14:00etara gauzatuko dira, euskaraz, jakina. 16 urtetik gorakoendako spinning saioa antolatuko dute, haurrendako eskalada saioa eta nahi duten ororendako zumba saioa. Kirol horietan euskaraz aritzea, hori erronka. Bertan aritzeko deia egin du Aizpeak.

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketak

Asteburuan Sakanako Futbol 8 Topaketetako 18. jardunaldia dago jokotuan, denboraldiko azkenurrekoa.

18. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun
11:00etan: Mediolanum - Sutegi
12:00etan: Tipi Tapa - Sayas
12:00etan: Kaixo - Dantzaleku
Igandean, Urdiainen
13:00etan: Etxarri Aranatz - Urdiain
Atsedean: Lagun Artea

Txirrindularitza

Asier Etxeberria laugarrena Lizarran



Asier Etxeberria, Quesos Albenizeko gainontzeko taldekideekin batera.

Mendiko maillota jantzi zuen Etxeberriak eta Quesos Albeniz bigarren talde onena izan zen

Igandean juniorrek lasterketa zuten Zangozan. Beola Motorreko Iñigo Zabalkak irabazi zuen 26. Zangoza Hiria Sari Nagusia (1:56:16). Burundako Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria laugarrena sartu zen, 10 segundora. Bere taldekide Xabier Maiza 8.a sailkatu zuen, Hodei Zia 19.a, Alex Unzilla 24.a eta Oihan Vinagre 38.a. Asier Etxeberriak jantzi zuen mendiko maillota eta Quesos Albeniz bigarren talde onena izan zen.

Aipatzekoa da ere larunbatean Zegaman aritu zirela juniorrak. Asier Etxeberria 9.a eta Alex Unzilla 23.a sailkatu ziren.

Afizionatuak: Iker Azkarate bigarrena Loinaz Sarian

Larunbatean afizionatuek Loinaz Saria zuten jokoan Beasainen. Telco'm Gimex taldeko Jonathan

Cañaverl iritsi zen bakarrik helmugara (2:53:00), Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Iker Azkarateri 14 segundo aterata. Eta igandean Bergaran jokatutako Pentekostes Sarian Parking Geltokiko Xuban Errazkin gailendu zen (3:15:06). Rural Kutzako Daniel Seage 4.a sartu zen, 7 segundora.

Josu Etxeberria 6.a eta Ailetz Lasa 8.a Abadiñon

Kadeteak Arronizen aritu ziren larunbatean. Arabarrak taldeko Jokin Murgialdai izan zen azkarrena lasterketan (1:36:04). Quesos Albenizeko Ailetz Lasa 9.a izan zen eta Intersport Irabiako Josu Etxeberria 10.a. Marcos Pison 11.a sartu zuen, Beñat Etxezarreta 15.a, Urko Gorriti 18.a, Josu Jaka 29.a eta Javier Mitxaus 42.a. Irabia 3. talde onena izan zen eta Quesos Albeniz 5.a.

Igandean Abadiñon arituziren

VI. Sakana Burunda martxan eta XXI. Altsasu BTT-n izena ematea zabalik

Ekainaren 4an VI. Sakana Burunda martxa zikloturista jokatuko da. Bi aukera daude, martxa luzea (124 km) edo ibilbide laburra (100 km). Eta ekainaren 12an XXI. Altsasu BTT Zeharkaldiaren txanda izanen da. Bi ibilbide daude: luzea (46 km) eta motza (34 km). **Bi probatan izena emateko** www.barrankatt.com edo www.rockthesport.com.

kadeteak, Gaztetoak Torneorako baliagarria zen proban. Toyota Armentia Joseba Lopezek irabazi zuen (1:16:44). Josu Etxeberria 6.a sailkatu zen eta Ailetz Lasa 8.a. Bestetik, eskolakoek proba izan zuten Artikan.

Maialen Aramendia Alicanten garaile

Espainiako Koparako baliagarria zen txirrindularitza lasterketa jokatuko igandean Calpen (Alacant), 66 km-koa. Esprint estuan erabaki zen proba eta CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia izan zen txapelduna.

Irristaketa



Zilarrezkoak

Anne Lapuentek eta Unai Villalobosek Nafarroako Zirkuitu Txapelketan bi zilarrezko domina jaso zituzten

Asteburuan Nafarroako Zirkuitu Irristaketa Txapelketa hartu du Iruñeko Antoniuttik. Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak bertan aritu dira. Anne Lapuente Perez zior-diarrak 500 metro esprintean bigarrena sailkatu zen eta zilarrezko domina ekarri zuen. Bestalde, Barañaingo Lagunak taldean dabilen Unai Villalobosek zilarrezko domina lortu zuen 500 metro zirkuituan. Haiekin batera Ander Chamorro, Jose Diego Da Costa, Ana Rita Correia eta beste hainbat sakanadar lehiatu ziren. Asteburu honetan Espainiako Zirkuituko Txapelketa jokatuko da Sada A Coruñan.

Disko jaurtiketa

June Kintana
Espainiako
txapelketa

Espainiako Unibertsitate Txapelketa irabazi zuen bakaikoarrak, disko jaurtiketan

Maiatzaren 13tik 15era Espainiako Unibertsitate Txapelketa jokatu ziren. Atletismoko disko jaurtiketan Leongo Unibertsitatean dabilen June Kintana Larrazak sekulako lana egin zuen. Bakaikoarra onena izan zen disko jaurtiketan eta urrezko domina jantzi zuen.



June, lortutako azken urrezkoarekin.

Mendia

Bakaikoa-Bakedano
Altsasukoen

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak ibilbidea antolatu du iganderako. Hitzordua Altsasuko klubean jarri dute, goizeko 7:00etan. Handik autoetan Bakaikura joango dira eta Bakaikuko bargatik gora Bakedanoranz abiatuko dira. Urbasa-Andia zoragarria dago sasoi honetan.

Botxa

Iratxoko Botxa
Txapelketa aurrera

Aurten 7 talde lehiatzen ari dira petanka antzeko joko tradizionala den Iratxoko Botxa Txapelketan.

Asteburuko partidak

Ostiralean

19:00etan: AHTrik Ez / Desesperados

20:15etan: Iñigo-Xabier-Jabier / Lirainak

Larunbatean

19:00etan: Tximeleta / Xabier-Migel-Txutxurrin

20:15etan: AHTrik Ez / Guillermo-Francisco-Iñaki

Igandean

19:00etan: Iñigo-Xabier-Jabier / Tximeleta

20:15etan: Desesperados / Xabier-Migel-Txutxurri

Aurreko asteburuko emaitzak

Desesperados 15 - Guillermo-Francisco-Iñaki 12
Xabier-Migel-Txutxurrin 8 - Lirainak 15
Iñigo-Xabier-Jabier 12 - AHTrik Ez 15
Tximeleta 15 - Desesperados 14

Yoseikan Budo / Combat Jujitsu

Urrez, zilarrez eta brontzez beteta
itzuli dira Amets taldekoak

Zakua bete domina itzuli dira Amets Yoseikan Budo taldekoak. UTZITAKOIA

Combat Jujitsuko Andaluziako Irekiko elkarten arteko kopa Amets eta Vejer de la Fronterak osatutako taldearendako izan da

Maiatzaren 7an Nerjan Combat Jujitsuko Andaluziako Irekia jokatu zen. Bertan aritu ziren Amets Yoseikan Budo elkarteko kideak, tartean sakandarrak.

Amets taldekoek bertan lortutako emaitzak paregabeak izan dira. Txapelketa horretan Cadizko beste Yoseikan Budo elkarte batekin batu egin zen Amets eta bi taldeak, elkarrekin, primerako emaitza lortu zuten: elkarten arteko kopa nagusia irabazi zuten.

Andaluziako Irekiko emaitzak

Oihan Arnanz altsasuarra, urrea; Manex Goikoetxea altsasuarra, urrea; Pierre Viarougekanbotarra, urrea; Alejandro Valdés (Vejer de la Frontera, Cadiz), urrea; Julio Valdés (Vejer de la Frontera), urrea; Aritz Agirrebengoa altsasuarra, zilarra; Xuban Muñoz altsasuarra, zilarra; Thomas Sainson kanbotarra, brontzea; eta Aarón Aneiros (Vejer de la Frontera), brontzea.

Espainiako Irekia prestatzen

Amets taldean garagarriaren 19an Bartzelonan jokatu den Combat Jujitsuko Espainiako Irekia prestatzen ari dira. Halaber, udan entrenatzen jarraituko dute azaroan Parisen jokatu den Yoseikan Budoko Europako txapelketarako.

Bihar karatea Irurtzunen

Irurtzungo Shotokanek antolatuta, larunbatean, 16:00etan, XXVIII. Irurtzungo Karate Txapelketa jokatu da.

Mendi lasterketak

Ergara eta Zegamara begira

Asteburuko lasterketekin hasiz, igandean Irati Traila jokatu zen. Ihouaun Nassirik (1:48:27) eta Uxue Loizuk (2:25:15) irabazitako lasterketan Javier Noveleta irurtzundarra izan zen lehendabiziko sakandarra, helmugan 20.a (2:10:38). Proba motza Alberto Azparrenek irabazi zuen (50:14) eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarra izan zen lehen sakandarra, helmugan 29.a eta 7. emakumezkoa (1:16:45).

Codon 16.a Arantzan

Igandean jokatu tako Arantzako mendi lasterketan Joseba Larralde (1:26:30) eta Aitziber Ibarbia gailendu ziren (1:49:38). Francisco Codon irurtzundarra izan zen lehen sakandarra, helmugan 11.a (1:40:39). Bestalde, Ojala Zelai I. Herrikoia Sergio Garciak irabazi zuen (27:10). Kike Aldasoro altsasuarra 44.a iritsi zen (39:20).

Ergako kronoigoera



La Guan taldeak hirugarrenez Ergako Trinitatera Kronoigoera antolatu du bihar, 10:00etan, Irurtzungo Aska plazatik. Goizeko 9:30ean zabalduko da izena ematea. Pasa den urtean 39 korrikalarik hartu zuten parte eta Mikel Rubio (22:44) eta Miren Zubieta (31:40) gailendu ziren.

Sakandarrak Irati Traillean

Luzea (22,6 km, 1.100 m desnibel +)

1.	Ihouaun Nassiri (Logroño)	1:48:27
20.	Javier Noveleta (Irur.)	2:10:38
27.	Iñigo Rekalde (Irur.)	2:16:22
36.	Iñaki Morillas (Irur.)	2:19:41
42.	Iñigo Etxarte (Irur.)	2:23:38
43.	Andoni Goñi (Irur.)	2:24:50
97.	Joseba Rivas (Irur.)	2:48:01
111.	Francisco Jose Juango (Irur.)	2:55:04

Motza (10,7 km, 300 m desnibel +)

1.	Alberto Azparren (Oibar.)	50:14
29.	Haizea Ramirez (Alts.)	1:16:45
32.	Unai Razkin (Irur.)	1:18:48
34.	Igone Moreno (Etx.)	1:20:00

Sakandarrak Arantzan (16,5 km)

1.	Joseba Larralde (Bera)	1:26:30
11.	Francisco Codon (Irur.)	1:40:39
12.	Alatz Agirre (Arb)	1:41:10
17.	Beñat Anda (Etx)	1:47:20
64.	Xabier Zabaltza (Arb)	2:02:26

Zegama-Aizkorri

Igandean jokatu da XVI. Zegama-Aizkorri mendi maratonia (42 km). Hainbat sakandar arituko dira. Gaur II. Zegama-Aizkorri Km Bertikala antolatu dute, 16:00etan.

Automobilismoa



Aldekoa eta Goikoetxea lanean.

Javier Goikoetxea hirugarrena
Terras do Mondeon

Asteburuan Espainiako Txapelketarako baliagarria den Terras do Mondeon Rallya jokatu zen. Atzera ere, lan bikaina egin zuten Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrak (Ford Fiesta R5+), hirugarrenak sailkatu baitziren (1:10:07). Irabazleak RMC Motosporteko Xevi Pons eta Xabier Amigo izan ziren (Peugeot 208 Maxi Rally, 1:07:03).

Goñi eta Aribere bere kategoriariako onenak Arnedon

Asteburuan VII. Rallye Factory Callahan jokatu zen Arnedon. Lasterketa Jesus Moro eta Migel Angel Cañasek irabazi zuten (Porsche 911 GT3, 32:43). Garikoitz Goñik eta Iñaki Aribek (Renault Megane) seigarren postuan despeditu zuten proba (34:49), bere kategoriako lehenak eta sportechen hirugarrenak.

Non erabili

LIZARDI ESTETIKA
ZENTROA

ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua depilazio-
etan.

HOSTO GORRI
ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ
Dendako produktuetan %
5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ
%15eko deskontua gradua-
tuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

IZARA

ALTSASU

%5eko deskontu zuzena ete-
keko jantzi eta osagarrietan.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketee-
tan, %10eko deskontu-txar-
tel bat hurrengo erosketan
erabiltzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

TIPI TAPA
OINETAKOAK

ALTSASU

60€ko erosketatik %10eko
deskontua (eskaintza ez
metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin, %10eko
deskontua.

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa batengatik
etxeko produktua opari.

www.guaixe.eus-en
zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

kultura >>

Sakana Maitia Altsasun

Gaur, 22:00etan, Iortia kultur gunean



Sakana maitia kantu bat da. Baita dokumental bat. Baita kontzertua ere. Ikuskizun guztia- ren hasieran Iñigo Muñoak eta Manex Albirak sortutako kantua dago. Ibarreko hainbat elezahar, mito eta Sakanako historiako pasarteak aipatzen ditu kantuak: Gartzia Ximenez, Goñiko Teodosio, Amaia, Amalurra, 36ko estatu kolpea... Oier Albizurrekin eta Asier Beltzarekin hasi ziren kantuari irudiak jartzen. Bideo-klipa behar zuena, kantua gidari, dokumental ere bilakatu zen, kultura eta historia ikuspuntutik osatuta dagoena. Kantuan aipatzen direnei testuingurua eman nahi die. Eta aurkezpenarako zuzeneko musika ezin zela falta uste zutenez, Hi Debe taldea sortu zuten, propio. Erkundengo Ama abesbatza ere arituko da.

Alegrerendako Nafarroako bertso- paper lehiaketako saria

Amaieurrek hartu du aurten Nafarroako Bertso Eskolen Eguna. 7 eta 15 urte bitarteko 90 gazte nafar elkartu ziren igandean. Ekitaldiz beteriko egunederraz gozatzeko aukera izan zuten guztiek. Goizetik Amaieurko gaztelua bisitatu zuten, Mikel Altzuart gidari zutela. Han zeudela, eta gitarra lagun, Amaieurko gazteluari bertsoak kantatu zizkioten. Txaloak bertso paper lehiaketan sarituak izan zirenek jaso zituzten. Lau sarituen artean Ekain Alegre altsasuarra dago, DBH 3. eta 4. mailakoen kategorian saritua. Bazkaldu ondoren bat-bateko saioa egin zuten gaztetxoek. Eguna bertsolaritzarekin lotutako jolasekin despeditu zuten.



Villafrancar erako Bernarda Albaren etxea

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Teatres, Altsasuko Amateur Antzerki Zikloak azken saioa izanen du bihar. Zikloa ixteko Caricaturasek, Villafrancako antzerki taldeak, Federico Garcia Lorcaren *La casa de Bernarda Alba* lan ezagunaren moldaketa dakar. Taldeko zuzendariak, Jon Barbarin ihabardarrak, muntaia horri bere ukitua eman dio: ez dago gizona ezkorik, denak emakumezkoak dira, zortzi. Senarraren heriotzaren ostean, Bernardak diziplina zorrotza ezarriko die bost alabei. Hori, praktikan, haiendako bizirik lurperatzea bezala izanen da. Pepe el Romano -antza denez, Angustias alabazaharrenekin ezkondu nahi du- eszenan agertuko da eta horrek hainbat gertaera eragingen ditu.

Altsasuko Dendari Elkartek (ADE) emandako 30 euroko txartela eta Alde Zaharreko tabernen Xurrutelkartek emandako biardo botila zozketatuko dira. Aurrekoan Iortia kulturgunetik sari horrekin atera zen Filo Borrega.

Etxarriko toki izenak ezagutzeko ibilaldia

Igandean, 9:00etan Etxarri Aranzoko estalopetik abiatuta, lau orduetan dozena bat km-ko ibilaldia egingen da

Bosgarrenez toponimia ibilaldia izanen da Etxarri Aranzan. Jose Luis Erdozia adituak gidatuta, ibiltariak Altzituerta aldera joko dute. Bide horretatik Bakaikura joko dute, atzera bueltan, Etxarrira joateko. Toki izenekin batera hainbat istorio eta bitxikeria ezagutzeko aukera izanen da. Izan ere, toponimoak ohitura eta gertakari historikoen adierazgarri bizia dira. Izena emateko: kultura@etxarriaranatz.eus edota Udala@etxarriaranatz.eus e-postak edo 948 460 930 telefonoa.

Sorkun

Bakarkako laugarren lana aurkeztuko du Sorkunek etzi, 19:00etan, Etxarriko plazan: *Ziklo-morphosia*. Joan den urtean argitaratutako lanarekin aldi berria zabaldu zuen Errenteriako abeslariak bere ibilbidean. Funkya, soula edota rhythm and blues moduko doinu beltzez osatutako eskaintza osatu du.

Irurtzongo txistulariak Uharte Iruñean

Agoitz, Uharte-Iruña eta Irurtzongo musika eskole-tako txistu ikasleek kontzertua eskainiko dute elkarrekin. Uharte-Iruñeko Arte Garai-kideko Zentroan izanen da, gaur, 19:00etan. Txistua beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera emanen dute ikasleek.

Etxenike idazlea Olaztin

Luisa Etxenike idazlea gaur, 20:00etan, Olatzagutiako liburutegian izanen da. Berak idatzitako *Vino* eleberriaz eta beste hainbat gaizhitzegiteko aukera izanen dute hara bertaraten diren guztiak.



Larrazpi bete doinu

Trinitate festak direla eta, Irurtzongo gazte elkarteak musika eskaintza zabala du. Gaur, 23:00etatik aurrera, Mitosia eta Lur-J taldeek kontzertuak eskainiko dituzte. Despeditzeko DMDA dj-k. Bihar Larrazpitek, 22:00etatik aurrera.

LAKUNTZAKO I. CAVA FESTA

maiatzak 20-21-22

MAIATZAK 20 OSTIRALA 19:30-2:00

20:00 Brindis herrikoia
23:00 ERANTZUK ZAK taldearen musika emanaldia

MAIATZAK 21 LARUNBATA 13:30-2:00

16:00 DIABLES SE M'N REFUN taldearen *versots* irakurketa
20:00 Catalunya eta Euskal Herriaren arteko brindixa
20:30 Haurren *correfoc* ikuskizuna pilotaleku ondoan
23:00 LAKUNTZA KANTUZ musika saioa

MAIATZAK 22 IGANDEA 11:00-18:00

BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA BEREZIA
(bazkaltzeko eta afaltzeko aukera dago)

*Egingu dezagun
topa!*



LAKUNTZA
Udala • Ayuntamiento



Apur Ogi Berri | Aralar burdindegia
Lagun Artea | Lakuntzako Ostaturia
Nerea Ileapaindegia | Sorgiñak Taberna
Tania Arraindegia

Arbizuko festak iragartzeko kartel lehiaketa

Arbizuko Udalak herriko festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du, helduen eta haurren mailan. Arbizuko festekin zerikusia duten gaiekin osatu beharko dira kartelak. Ezinbestean honako testua agertu beharko da: *Arbizuko Sanjuanak 2016, ekainaren 23tik 29ra*. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ditzake. A3 tamaina izan beharko dute kartelek. Lanak plika sistema erabiliz eta egilearen datuak eta harremanetarako telefonoa aurkeztu beharko dira.

Haurren mailan (DBHko 2. mailara arte), berriz, lanak neurri estandarreko kartulina bate-

an aurkeztu beharko dira. Kartelak aurkezterakoan, atzeko aldean, gutun-azal bat itsatsia izan beharko dute, zeinetan egilearen datuak agertuko diren. 50 euroko sari bakarra banatuko da. Bai batean bai bestean lanak originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea garagarriaren 6an, 14:00etan despidituko da. Epaimahaiak 150 euroko sari bakarra emanen du eta festen programan aterako da. Informazio gehiago: www.arbizu.eus

Play-back

Festetan izanen den lehiaketan izena emateko liburutegitik pasa.

bazterretik

Iosu Lizarraga

Aplikazioen munduan nabigatzen VI

Sea Hero Quest joko bat da, zientzialariei demenziaren aurkaborrakan egiteko laguntzen diena. Besterik gabe, momentu on bat pasa dezakezu, itsaso eta paduren azpian dauden izaki magikoei jarraituz. Eta bitartean mundu osoan 45 milioi pertsoneri argiten diena gaitasun honen kontra borrokatzen lagundu dezakezu. Soilik 2 minutu jolas-tuz, 5 orduko ikerketa zientifikoko baliokidea sortzen egongo zara. GLITCHERS-ek sortua, Deutsche Telekomek aurkeztuta eta University College London eta University of East Anglia zientzialari eta Alzheimer's Research jendearen laguntzarekin batera, SEA HERO QUEST zientzia eta entretenimendugailur epiko bat da, demenziari buruzko ikerketa nola egiten den modua betirako aldatuko duena. Navigate Arctic Rivers, Golden Shores eta Mystic Marches (eta Kano Reef laburrera), zure egunerokoan oroitzapenak biltzen dituzte, eta Adorabella, Galleo eta Octopid izaki magikoak jarraitzen dituzte. Bildu ahalik eta itsasoko izar gehienak eta erabili zure ontzia pertsonalizatzeko; kolore berri bat, beste banderak aukeratu eta beste hainbat gauza.

Younity: Home Media Server etxeko multimedia zerbitzaria da. Zure ordenagailuan <http://getyounity.com> web gunean doan jaitsi daiteke - gordeta dituzun bideo, musika, argazki eta dokumentu guztiei zure mugikorretik sarbidea ematen dizu. Gainera, ordenagailuan gordetako multimedia guztia zure mugikorraren memoriara transmititu dezakezu, informazioa offline izateko. Garrantzitsua: younity mugikor eta ordenagailuetan instalatu behar da. Ematen

dituen aukerak:

-Hainbat ordenagailu BATERATU: Zure ordenagailuen eduki guztiak bateratu ahal dituzu, menu antolatu batean eta zure eduki guztietan aldi berean bilatu dezakezu, zure gailu guztien bidez.

-Zure bideoak eta musika STREAMING: Edozein pelikula, bideo edo GoPro bideo zure ordenagailuetatik mugikorretara streaming bidez transmititu dezakezu; zure musika kolezio eta erreproduzio listak zure ordenagailuetatik mugikorretara transmititu ditzakezu; zure mugikorren memoriara musika deskargatu dezakezu, konexiorik gabe eskuragarri izateko; eta iTunes kolezioak bateratu ditzakezu hainbat ekipoetan.

-Zure ARGAZKIAK eskuragarri: Zure ordenagailuetan gordeta dituzun argazki guztiak eskuragarri dituzu mugikorretatik; zure argazkiak erresoluzio osoan deskargatu ditzakezu eta zure ordenagailuetan gordeta dituzun argazkiak sare sozialetan argitaratu ditzakezu.

-FITXATEGIAK eskuragarri: Ekipo ezberdinetariko zure dokumentu guztiak eskuragarri izango dituzue eta tamaina handiko fitxategiak zure mugikorretik kanpo gordeta, baino eskuragarri izango dituzu.

-ASEGURATUA ETA PRIBATUA. *Fabulous*, zientzian oinarritutako zure energia handitzeko coachinga da. Berari esker, osasun gehiago izateko, pisua galtzeko eta hobe lo egiteko zure bizitzan oihura osasungarriak eta errutinak txertatuko dituzu. Zure helburu osasuntsu eta produktiboak lortzeko, urratsez urrats programabat jarraitu beharko da. Zure bizitzan 5 oihura sartuz, altxatzerakoan kirola egin, elikadura hobetu, hobe lo egin, pisua galdu eta motibazioa mantenduko duzu.

Presoen osasunerako eskubidea aldarrikatzeko erakusketa



Igandean Etxarri Arantzen mustu ondoren Pello Mariñelarena Imazzen lanak Altsasuko Gure Etxea eraikinean izanen dira ikusgai asteburuan

Pello Mariñelarena Imazzen lanen errepiken bilduma bat da igandean Etxarri Arantzen mustuzen erakusketa. Egilearen sormen lanaren aitorza izan nahi du erakusketak. Bai-

na, aldi berean, aldarrikapen bat ere. Espetxean, batere osasun artatzerik gabe, hil zen etxarriarra, HIESak jota. Mariñelarenari bezala "larriki gaixorik dauden hamar euskal preso politikoei eskubideak azken muturreraino ez bortxatze" eta "haien askatasuna aldarrikatzeko" modua ere bada erakusketa.

+www.guaixe.eus

Pirritx, Porrotx eta Marimotots baserrian

Asteazkenean, 17:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek *Amalurra* ikuskizuna ekarriko dute Altsasura, amalurra eta baserria oinarri duena. Pailazoak baserrira joan dira Marimototsengana. Han Marimo opatuko dute, Ilargirekin ikasten ari dena, baserritarra izan nahi baitu. Ilargi haurdun dagoenez, denek baserriko lanetan lagunduko diote. Laster jaioko da umetxoa. +www.guaixe.eus



Betiko esentzia gordetzen duen diska berria

Los del Rayo talde altsasuarrak *Sin alas para volar* disko berria kaleratu du. Esentzia galdu gabe hogeita bost urte baino gehiagoko "garapena" nabaria dela dio taldeak. Gor disketxean grabatu dute azkeneko diskoa eta soinua "ikaragarria" dela azaldu dute



Erkuden Ruiz Barroso

Abesti batek hamaika interpretazio izan ditzake. *Sin alas para volar* deitzen da Los del Rayoren azkeneko diskoa, *Sin alas para volar* abestiari esker. Hamaika interpretazio dituen abestia da: "ametsak jarraitu behar ditugula esan nahi du. Ametsak izan behar ditugula" dio Leok, taldean gitarra eta ahotsak jartzen dituena. Alonsok, bateria, beste interpretazio bat eman du: "abestia entzun nuenan etxe kaleratze bat etorri zitzaidan burura. Etxerik gabe gelditzen direnak eta ia bere buruaz beste egitera behartzen dituztenak". Aurrejarraitzeko indarrak ere entzun daitezke abestian: "lur-jauzi batera iristen den jendea dator kit niri burura. Bi aukera ditu: bota edo gelditu. Botatzen bada ez ditu hegala izango. Beraz, gelditu eta borrokatu beharko du". Peioren hitzak dira; gitarra eta ahotsak jartzen ditu taldean.

1980ko hamarkadaren bukaeran hasi ziren Los del Rayokoak jotzen eta diskoak kaleratzen. Gara-

pena ikusten da azken diskoan. "Normala da, izan ere, hogeita bost urte baino gehiago daramagu jotzen. Urte hauetako lana nabaria da". Gitarraren indarra nabarmena da oraindik ere, "rocka". Ez dute esentzia galdu, Los del Rayoren esentzia entzuten da diskoan. "Baina zertxobait amerikarragoa bada. Abesti batzuk soinu amerikarrak dituzte: gitarra saturatua, eta abar", azaldu du Peiok. Hala ere, "punkagoak" diren soinuak ere entzun daitezke diskoan.

Sin alas para volar abesti bat da. Baina diskoak beste zortzi abesti ditu, aurrekoak baino hiru gehiago. "Sei abesti zituen beste diskoak eta motz gelditu zen". Hamabi sartzea pentsatu zuten, baina gehiegizkoa iruditzen zitzaien. Beraz, bederatzi jartzea erabaki dute. Gor disketxean "oso gustura" lan egin dute eta ekoizpen lana "oso ona" dela esan dute. Estudioak ere urteekin aldatu eta "garatu" direla azaldu dute.

Aurkezpena

Iruñeko Zentral kafe antzokian

aurkeztu zuten diskoa. Hainbat kontzertu eman dituzte dagoeneko eta garilean eta garagarrilean zuzenekoak egingo dituzte Iruñean eta Agurainen. Altsasun diskoaren aurkezpena egitea nahi dute, baina oraindik ez dute data zehaztu. "Kontzertuetarako erreperatorio luzea prestatzen dugu, gure ibilbidearen erakusle. Hasieratik jarraitzen gaituztenak abesti zaharrak entzun nahi dituzte, baina berriak ere". Beste proiektu handi bat prestatzen ari dira: akustikoa. Oraindik ez dute asko zehaztu baina korala eta bandarekin batera jotzea nahi dute. "Jendea asko harrituko dio zein politikak diren abestiak akustikoan". Bi bideo klip grabatu nahi dituzte ere.

Diskoaren 1000 ale ateratu dituzte. Aurreko diskoaren 500 ale ateratu zituzten eta 200 aleko beste tirada bat egin behar izan zuten. Diskoa Altsasuko hainbat tabernetan aurkitu daiteke -Lurrazpi, Lezea, Espejo, Urtzi eta Akelarre-, Iruñeko tabernetan ere, Gor disketxean saltzen dute edo, bestela, Los del Rayoko kideekin harremanetan jartzen.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 30%	euria: 60%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 30%	euria: 20%
Min: 9 Max: 24	Min: 14 Max: 22	Min: 10 Max: 14	Min: 8 Max: 20	Min: 11 Max: 22	Min: 11 Max: 18	Min: 10 Max: 19

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	22	6	6
Etxarri A.	20.8	4	6.6
Altsasu	20	5	11.5
Aralar	12.9	2.9	13.5
Urbasa	15	2.5	2.5

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
22	30	6	13

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Martin Zelaia
Txirrinka egitasmoaz

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



GUAIXE FUNDAZIOA MEKNA proiektu izendatu du Nafarroako Gobernuak

Honek esan nahi du, Guaixeri emandako diruaren zati bat itzuliko zaizula errenta aitortpenean

150€

BEHERAKO EKARPENETAN

>

GORAKO EKARPENETAN

%40

bueltan

%80

bueltan

Milesker zure babesagatik!

1. Zer da Txirrinka egitasmoa?
Euskal Herri osoan Abiadura Handiko Trenaren (AHT) eta azpiegitura handien kontra asteburuan egingo den bizikleta erreleboen egitasmoa. Korrika antzeko bat izango da. Bost kilometro inguruko tarteak daude eta erreleboak egingo dira. Tarte bakoitzean talde batek hartuko du lekukoa. Badira batzuk Iruñean hasi, Urretxun gaua pasatu eta Bergararaino joango direnak. Beraz, ibilbide osoa egingo dute. Maiatzaren 21an eta 22an ospatuko da Txirrinka.

2. Zergatik antolatu duzue?
AHT-ren eta beste azpiegituren kontra egiteko. Pentsatzen dugu mugimendu hau berriz indartu behar dugula, jendea berriz aktibatu behar dela. Guk pentsatzen dugu hori ez dela gure erredua, eredu ekonomikoa eta soziala aldatu behar dugula eta jendea animatzeko modu bat da hau.

3. Sakanako zein herritatik pasako da Txirrinka?
Oskian dagoen harrobitik sartuko da Sakanan. Lehenengo tartea Irurtzunen bukatzen da. Irurtzunen bazkaria egonen da, 15:00etan, eta, ondoren, Arakil zeharkatuz eta Lakuntza, Arbizu eta Etxarritik pasatuz, Lizarrustiko bidea hartuko du martxak.

4. Pasatzen denean zerbait berezia eginen da?
Momentuan ez, baina aurretik hainbat ekimen prestatu ditugu. Altsasun jai bat egingenuen aurreko ostiralean eta gaur, 20:00etan,

kontzentrazioa egingo dugu Altsasuko udaletxearen aurrean.

5. Zein da helburua?
Helburua egitasmo handi hauek gelditzea da. Batez ere AHT, baina baita Olaztiko porlandegia, erraustegia, zabortegeak, goi tentsioa... Horren handiak ez diren proiektuak badaude ere, baina garrantzitsuak direnak: harrobiak, Zangozan eta Zilbeltin egin nahi dituzten potasako eta magnetikoak, Baztanen egin nahi duten golf zelaiak... Askok dira.

6. Zein da momentu honetan AHTren proiektuaren egoera?
Nafarroan Castejonek tartea bat egin dago. Plataforma deitzen dena. Hor trenbidea eta katenaria egin behar dute. Bestela, geldirik dago orain. Egungo Gobernuak dio Iruñean geltokia egin behar dutela Etxabakoitz. Sakanan lehiaketa publikora ateratu behar dute hemengo zatia. Prozedura hasi, beraz, jarri da martxan. Euskadin hainbat tartea eginak daude eta beste hainbat martxan daude. Hanzailagoa izango da gelditzea, asko dagoelako egin. Baina nik uste Nafarroan gelditu daitekeela.

7. Txirrinka Bergaran amaituko da. Zergatik Bergaran?
Handagoelako euskal Y-aren korapiloa. Han kriston triskantzua egin behar dute; hainbat tunel, tartea asko bertan pasatzen dira, alde batera eta bestera doazen bidearen adarrak... Batzuk jada eginak daude, beste batzuk egin gabe. Han dago koska.

8. Parte hartu nahi duen jendeak zer egin behar du?
Erreleboak kolektibo sozialek egingo dituzte. Jendeak parte hartu nahi badu, Txirrinka pasatzen den orduan joan daiteke eta han itxoin. Bizikletaz joan ezin diren dako parte hartzeko beste modu bat dago. Iruñean lehenengo tartea oinez egingo da. Sasoia jubilatuen elkarteak egingo du. Bukararen ere, igandean, lau kilometro-etan manifestazioa egingo da oinez.

9. Sakanatik zenbat taldek parte hartuko dute?
Zortzi inguruk. Irurtzundik Hiriberriraino sindikatuak joango dira, Lakuntzan bertako talde ekologikak hartuko du lekukoa, Etxarritik antimilitaristak, Altsasuko herri mugimenduak Lizarrustin, handik Sakanako AHTren eta beste egitasmo erraldoiek kontrako taldeak Lizarrustitik behera, eta Sakanako Gazte Asanbaldak ere Lizarrustira iritsi baino lehen hartuko dute.

10. Zerbitzuak egongo dira?
Irurtzunen, larunbatean, bazkaria izango da eta afora Urretxun. Bertan lo egingo dute. Igandean, gosaria eta hartu eta Bergaran, manifestazioaren ondoren, herri bazkaria egingo da ere.

11. Zenbat pertsona zaudete antolakuntzan?
Altsasun lauzpabost pertsona gauden Txirrinka antolatzen. Sakanan bi aste behin laupersona biltzen gara, Arakilgo bat, Aranazko beste bat eta bi burundak, koordinazioa egiteko.